

# ZUZENBIDEAREN HISTORIA

## DONOSTIKO AZTERKETA

Liber Iudiciorum

Zazpi partidak

Ius Commune Apektu Kanonikoa

Dekretalak

Nueva Plantako Dekretuak

Azaldu bietako bat aukeratuz:

1Las compilaciones del código civil

2“Allí donde existan”

Testua: Cofradía de Arriaga

## **1. ZUZENBIDEAREN HISTORIA: SARRERA**

Historia aztertzeak egungo Zuzenbidea eta Erakundeak ezagutzeko ezinbestekoa dugu, Historiaren helburua une historiko bakoitzean komunitateen zuzenbidea zein izan zen jakitea baita: egitateak aurkitu behar dira helburuaren eta horien arteko lotura kausala ezagutzeko. Azken batean Historia eta horren eragileak ezagutzeko nahiak oraina ezagutzeko desioan oinarritzen da. Zuzenbidea eta Erakundeak izaera anitz izan ditzakete lurralde eta, errealitate sozio-politiko ezberdinen arabera.

Zuzenbidea, komunitate jakin batek bere harremanak bideratzeko duen arau multzoa da; Zentzu objektiboan Zuzenbidea ezagutzeko tresnarik ez dugu, historialariek eta historiaren subjektuek baldintza politiko-ekonomiko batzuk izango dute (azken batean historiaren barne dauden baldintzak dira). Horregatik historia egiteko behar den informazioa ezagutzeko Iturrietaz mintzatuko gara.

Erakundea bestalde, errealitate bakoitza arautzen duen lege multzoari deritzogu. Erakundeak, gizartearen portaera sozialak arautzeko edo antolatzeko beharrari eragin juridiko eta zuzenbidezkoa ematen diote: Zuzenbide Pribatuarenak (partikularren arteko harremanak) eta Z. Publikoarenak (aginte eta partikularren harremanak) izan daitezke.

Iturriak mota anitzekoak izanda, denbora aurrera egin ahala ugarituz joan dira: Zuzenbidearen berri ematen digutenak Iturri juridikoak direlarik (Zren iturri zuzenak eta zeharkakoak daude era berean). Gizarteak zuzenbidezko arauak behar ditu bere barne-harremanak antolatzeko. Gauzatzen ez den edo ezin den Zuzenbidea teoria hutsa den heinean gizarteari galdatu daitezkeen portaerak ezartzeko Zuzenbidearen ideia instrumentala agertzen zaigu. Eraginkortasuna ezinbestekoa da interes publikoa Zuzenbide horren alde jartzeko (gizarteak ontzat emateko). Zuzenbidezko arau hauek autoritatea behar dute; baita ere eraginkorra bihurtzeko formulak, gizarte-usadioak. Ohitura galdagarria bihurtzen denean juridikoa izatera pasatzen da.

Ohitura, Zuzenbidearen zatia (iturria) eta sortzailea (baita ere ezagutzera eramaten duena) dela baieztatu dezakegunez Komunitateak Zuzenbidea sortzeko gai dela ulertu dezakegu (ez du forma idatzirik normalean, idazterakoan Legearen izaera hartuko luke).

Legea, komunitate batean botere politikoak sortutako, erakundeen bidez, formulazio-bide orokorra, salbuespenik gabekoa. Ez du, ohitura bezala, usadioen errepikapenaren mugapenik hartzaileak hori ezagutzera eramatearen ondorioz bere indarra lortzen du.

Testu inguru honetan, Estatua indartzen den bitartean ordenamendu juridiko-hierarkizatuak ohituran oinarritutako forma legala hartuko du. Lehentasun orden bat finkatu behar da

ordenamenduan, (aipu-legeak), arau bakoitzak sistemaren zati bat bete dadin eta elkarren arteko kontraesanak saiesteko. Teorian, ordenamendu horrek buruazkitasun bat izango du, perfektua izango da. Hala ere, praktikan ez da perfektua izango eta horretarako hurrengo iturriak, Zuzenbidearen Iturri ordeko moduan erabiliko dira:

Epaia, Zuzenbidea gatazkak konpontzeko bidea den arren baliteke Zuzenbidean hutsuneak agertzea. Lege hutsune edo errakuntza baten aurrean egonda Epaileen interpretazioa agertzen da zenbait sistema juridikoetan (soluzio berdina epaiketa berdinei ematerakoan finkaturik geratzen da, Zuzenbidearen iturria eta zatia bihurtuz).

Jurisprudentzia, Zuzenbidearen jurisprudentzia judiziala (epaileen interpretazioari esker sortutakoa) eta doktrinala (Zuzenbidearen aztertzaileen bidez sorturikoa) bereizi behar dugu.

Printzipio Orokorrak, epaiak beti erantzun bat emateko behartuak daudenez eta ordenamenduaren inperfekzioa ukatzeagatik, logikaz ondorioztatutako irtenbidea da: ardatz arrazionalak dira (berdintasuna, askatasuna...).

Iturriren bat, Legea esaterako, ordenamenduaren parte hartzailea izatera pasatzen denean (egun argitaratua denean: segurtasun juridikoa) baliozkotasuna lortzen du. Ordenamenduaren parte delarik balioa galdu dezake (derogatuz edo bere orde bestea lege bat ezarriz).

Bestalde, Zuzenbidea eremu, denbora eta komunitate jakin baten gainean eraikitzen denez, horren gaineko hainbat ikuspuntu bultzatu dira: ikuspuntu lurraldetarra (lurralde, muga batzuen barruan, bizi diren pertsonen aplikatuko zaie) eta ikuspuntu pertsonalista (identitate juridiko berekoei euren Zuzenbide propioa aplikatuko zaie). Denborak, eraginaren ikuspuntua ematen digu (atzeraginkortasunarena eta jaiotza zein iraungitzearena). Nahiz eta ikuspuntu lurraldetarra egun zabalduagoa izan, baliteke ikuspuntu pertsonalista Zuzenbidearen aurrean onarpen zabalagoa eta beraz, eraginkortasun handiago ematea.

Egun Estatu Espainiarraren Iturri juridikoak Kode Zibilaren arabera legea, ohitura eta printzipio orokorrak dira (ohitura legearen faltan eta printzipio orokorrak aurreko bien faltan).

Sistema juridiko ezberdinei dagokionez Espainiako eboluzioa nabaria izan da historian zehar, IX. Mendetik XVIII.-XIX. Menderarte:

Erromanizazio aurreko garaian pertsonalismo nabaria izateagatik, komunitateen ardatzak ez ziren Zuzenbidearen ezagutzera bideratu, ezagupen eskasa. Hala ere Zuzenbide formulatuaren aztarnak aukitu dira Penintsularen hegoaldean (*Tartessos*) Abeginkortasun paktuekin, Klientela eta beste Zuzenbide erakunde Erromatar batzuekin batera.

Erromanizazioan Zuzenbidearen formula osotuak agertu zaizkigu; Bildumak (*Teodosioren Kodea, Codex Teodosianus* adibidez), Legedi bereziak (kolonialak, munizipalak eta meategietan).  
Dikotomia: Latindartasun eta Erromatar izaerak.

Bisigodoen garaian (476-711) bi gune ezberdinak ditzakegu: Galiakoa (*Eurikoren Kodea* eta *Alarikoren Brevarioa*) eta Hispania (*Leovigildoren, Codex Revisus* eta *Liber Libecioruma*)

Erdi Aroa (VIII-XV): Goi erdi Aroa eta Behe Erdi Aroa ezberdintzen dira:

Goi Erdi Aroari (VIII-XII) hasiera ematean Zuzenbide Feudala eta ohiturari hasiera ematen diogu. Erromatar Inperioa erori ostean (476. urtean)

Behe Erdi Aroan (XIII-XV), Zuzenbide Lurraldetarraren ugaritasuna nabarmena zen: Gaztela, Aragoi, Katalunia, Valentzia, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban.

Errekopilazioak (XVI-XX) Gaztelan, Aragoien, Katalunian eta Nafarroan eman ziren.

Kodegintza (XIX-XX) mota ezberdinak daude: merkatala, penala, prozesala eta, gure interesatzen zaiguna zibila (Lurralde Foralak 1889n: Balear Iretan, Katalunian, Aragonen, Nafarroan, Bizkaian eta Galizian).

## 2. ANTZINAROKO ESPERIENTZIA JURIDIKOAK

### 1.ERROMANIZAZIO JURIDIKOA

#### **IBERiar PENINTSULA ERROMATARRAK HELDU ZIREN GARAIAN**

Erromatar hedakuntza bere historiako faseen arabera izan zen. Penintsulara heltzean kartagotarren aurkako lehia zeuden (Mediterraneoko mendebaldearen konkista eztabaida). Errepublikar erromatarrek K.a. III. Mendean lehen aldiz heldu ziren penintsulara, eta une horretan penintsulak suposatzen zituen aukerak ikusita konkistari ekin zioten.

Erromatarrek penintsulara heldu aurreko egoerari “España Primitiva” deritzogu, penintsularen ideia ezin baitugu unitate edo batasun batekin lotu. Hau da, penintsula espazio geografiko zabal eta guztiz sakabanatuta zen, kontinente handi batean bizi ziren pertsonak ez zuten inolako batasunaren kontzientzia ezta beharrik izan. Beraz, esan dezakegu komunitateak euren artean ezezagunak zirela, gainera zenbait eremuetan giza komunitate horiek senitarteko talde zabalen fruituak ziren. Beraz, Penintsula ezin zen Zuzenbideaz hitz egin, Zuzenbideetaz baizik.

Zuzenbide horiek ezagutzeko iturri-urritasunarekin aurkitzen gara: iturri literarioak erromatarren garaikoak baitira. Gainera, aurkitutako iturriak *gentilizio* sistemaren dekadentzian sorturikoak dira. Ondorioz, ezingo ditugu sistema horiek behar bezala ezagutu: komunitate *gentilizio* hauek bere historia sortu dute, baina ez dute idatzi (beste batzuen eskuetan utzi baitute).

Garai honen iturri etnologiko eta geografikoak honako hauek izan ziren:

○Avieno: IV. Mendeko poeta latindarrak “Ora Maritima” idatzi zuen “orotero” greziar bat erabiliz (itsas bazterrek zehazki izendatzen zituzten zerrendak). Honi esker itsasertz eta herri antzinakoen izendegia (“nomenklator”) ezagutu dezakegu.

○Estrabon: Amasiakoa jaiotakoa, Augustoren garaian idatzi zuen eta Erroman bizi. Bere produkzio aipagarriena “Geografika” izenekoa: 17 liburutan, erromatarrek ezagutzen zuten lurraldeen geografia deskribatzen zuen (Penintsulari 3 liburu dagokio baina zeharkako iturriak dira, ez baitzen Penintsulan inoiz egon).

○Mela: jaiotzez espainiarra. “Chorografia”ko autorea.

○Plinio: “Historia Naturalis”aren egilea, 37 liburutan jasota Melaren garaikidea zelarik III. Eta IV. Liburuetan Hispaniaz idatzi zuen. Penintsulan egon eta bertako berri zehatzak eman, zuzeneko iturria.

○Ptolomeo: K.a. II. Mendeko geografo greziarra. Hiri izendegia oso zabala egin, izenak eta egoera geografikoak (altitude eta latitude) zehaztuz.

Garai horretako Historialariak:

○Polibio: Eszipionen zirkuluko kidea, greziarra. Hispanian egon zen K.a. 133. urtean. “Historiai” obran, 40 liburuetatik 34. liburua Hispaniari dagokio. Estrabonek azken hau asko erabiliko du.

○Diodoro: “Biblioteca Historica”ren autorea.

Hala ere iturri hauek interpretazio arazo nabariak ekartzen dizkigutenez, ezin dugu penintsula batasun unitate bat bezala ulertu kultura eta zuzenbidearen aldetik. Izan ere, nahiz herri bi edo gehiago kultura bera izan, Zuzenbide ezberdina izango dute. Edo, Kultura propio eta nortasun propioa zuen herri batek beste herri baten zuzenbidea har zezakeen bere nortasuna galdu gabe. Gainera, kultura eta zuzenbide ezberdinak zituzten herriek hizkuntza berdinak izan zezaketen.

## PENINTSULAKO MENPERATZE-PROZESUA ERROMATARRAK HELDU ONDOREN

Erromatarrak penintsulara iritsi zirenean aipaturiko ezberdintasunak sortutako arazoak aurkitu zituzten baina hainbat aldetan ezarragoa egin zitzaizen bertakoak menperatzea beste batzuetan baino:

### Hegoaldeko herriak

Lehenengo fasean Tartassos izan zen Mediterraneoko itsasbazterrak kontrolatu zituen hiria: turdetanoak, bastetanoak, oretanoak eta libiofenizioak. Herrialde horiek bazuten beraien barne-antolakuntza eta erakuntza politikoa (meategien ustiakuntzetan oinarritutakoa). Gizartea banatuta zegoen. Justinok eta Estrabonek turdetanoen legegintzari buruzko informazioa ematen digute: hiri estatuak ziren heinea, erromatar hiri estatuaren antzekoak ziren, erromatarrek arazo handirik gabe asimilatu zituztelarik

### Ekialdeko herriak

Edetanoak Kartagenatik Ebroraino, Idigenteak Kataluniar itsasbazterran, Ilergetak, iazetanoak eta karretanoak barnerago.

### Erdialde eta mendebaldeko herriak

*Gentilitate* sisteman antolaturikoak ziren senitarte talde zabalak zirelarik hedadura nahiko handia izan zuten, beste taldeetako kideak onartzen baitzituzten (hospitalitate eta abegikortasuna).

Baina, *gentilitate* batasun hori arriskuan jarri zen Aristokrazia gentilizioa azaldu, Hiri bizimoduak zabaldu eta Militar buru lotura pertsonalak azaldu baitziren.

Ohiko abegikortasun bideak erromatar erakunde horren itxura eta funtzioa hartuko du, Erromatarren instituzioen (*cliente patronus* Militarra) asimilazioa gero eta nabariagoa bihurtuz. Martzelo Vigilek azalduko du nola “klientela eta devotio” probetxuzkoa izan zitzaien bertako zenbait talderentzat erromatar jeneralengana hurbiltzeko.

### Iparraldeko herriak

Zeinbait iturriek, Estrabonek kasu, euren basatitasuna azaltzen digute. Emakumeen eragina komunitate hauetan nabaria zen izan zen.

Hiritar bizimoduaren hasierak aurki ditzakegu: gainerakoetan erakuntza tribalak diren bitartean. Erromatarrek *gentilitateak* iraundu zuten lekuetan aurkitu zituzten komunitateak menperatzeko orduan eragozpen handienak: erresistentzia.

Ezin dugu beraz penintsula osoa sistema juridiko bakarraren pean egon zelarik esan: molde juridiko oso ezberdinak eta korapilotsuak agertu zirelarik. Hau da, erromatar aurreko garaian ez ziren errealitate juridiko finkorik izatea lortu eta horien iraunkortasuna definitzea ez da erraza izango ere, ezta ohiturazko eta idatzizko ordenamenduen berezitasunak azaltzea.

Erromatarrak penintsulan finkatzerakoan Penintsulako zuzenbide batu bat lortzeko bideari ekingo diote: baina erromatarrek penintsula konkistatu aurretik ezin zen pentsa herri sakabanatu eta aniztasun hori batzea posiblea zenik.

Komunitate hauen zuzenbideak erromatar zuzenbidea finkatzen zen heinean iraungi egiten ziren, neurri eta modu ezberdinetan jakina. Euren erakunde batzuk mantenduko dira, erromatar zuzenbidean asimilatu baitziren: gehienak zeremonia hutsak (ezkontza musua kasu)

## **HISPANIAREN ERROMANIZAZIOA**

### **ERROMANIZAZIOAREN KONTZEPTUA**

Erromanizazio prozesua zabala izan zen, herri bakoitzaren ezaugarri eta baldintzak kontutan hartuko baitira: lurraldeak oso ezberdinak ziren eta erromatarren interesak herri batzuetan handiagoak izan zitezkeen beste batzuetan baino (iturri kopurua interesaren arabera).

Konkista ez zen era jarraituan eman, etenak izan zituen kolpe estrategikoen bidez. Erromanizazio prozesua ulertzeko bi modu daude; 1) Penintsulako herrien erresistentzia

azpimarratzea eta inbasio horren aurka erantzun zuten lehen espainiarrak goraiatzea eta 2) Erromanizazioa goraiatzearena.

Erromaniazioaren zergaiti nagusia boterea lortzea izango da: Erromatarrek interes ezberdinak ase arren, lurralde menperatuen hedadura gero eta handiagoa egin beharrekina aurkitu ziren.

Erromatarren penintsulan kokatzea prozesu militarra izan zen:

Lehen gerrate Punikoan erromatarren jarrera militar eta inperialak nabarmendu ziren. Erromak grekoen Inperio ekonomikoa berreskuratu nahi zuten, kartagotarrekina topo egitean bien arteko guda sortuz.

Bigarren gerrate Punikoan, iberiar penintsulan, erromatarren garaile atera ziren.

Erromatar errepublikak hedatu nahi zituzten, premia batzuk ase behar baitzituzten (esklaboena). Ejertzitoaren jeneralek zenbait abantaila lortu zituzten: zergen administrazioa eta ustiapena bereganatuz. Erromak hedapen ekonomikoari ekiten zion heinean inperio ekonomikoaren beharra agertu zitzairen: Italian, meategiak urriak zirenez beharrezkoa zuten kanpo meategiak hartzea horregatik Hispania bezalako lurraldeak behar zituzten inbertsio eta meategien beharra zeukatelako. Garia eta zenbait zereal ere behar zituzten. Itsasontziak garraiorako eta aberastasuna areagotzeko prest zeudenez, dirua modu erraz eta arinean inbertitzeko bideak ere irekiak zeuden.

Hala ere, Erromak ezin zuen penintsula bat batean konkistatu: penintsula oso ezberdinak zituen kontinente handi batean, ezaugarri ezberdinak agertu ziren zibilizazio-prozesuari dagokionez. Horregatik, errepublika garaian erromatarrek kostaldea eta hegoaldea bereganatu zuten (lehenengo fasea, ekialdeko *polisak*, zibilizatutako herriak).

Penintsulako bereganatze militarren prozesua lau fasetan banatzen da:

K.a. 218-206. Mediterraneo bazterra eta Andaluzia bereganatu.

K.a. 194-153. Ebro ibarraren inguruak, Segeda eta Ocilia okupatu.

K.a. 133. Numantzia bereganatu. Hiri hau beharrezkoa zen Duero ibaiaren arrora pasatzeko. Lusitanoen altxamendua gainditu ondoren Penintsula erdialdea hartu. Balear irlak okupatu.

K.a. 19. Kantabriar eta asturren aurkako gerrak bukatu: erromatarren aldeko garaipena.

## HIRIAK. URBANISMOA

Erromanizazio prozesua zibilizazio prozesutzat har dezakegu: erromatarren “civitas” moldeak eta bizimoduak osatzen baitzuten. Azken helburua “cives” erromatar estatus juridikoa lortzea zen.



Erromatarrek zuzenbidearen kontzeptio pertsonalista hutsa zuten, ez zegoen beren helburuen artean populazioa bihurtzearen nahia lurraldea menperatzearena baizik. Erromatarrek euren herriak “coloniak”, ezarri zituzten: populazio erromatarrez jendeztatuz “colonia civium romanorum” delakoak edota italiarrez jendeztatuz (*latinoak*) “colonia civium latinorum” delakoa.

Koloniak sortzeak italiar jendearen etortze etengabea ekarri zuen. Lehenengo mendean zeuden gerra zibilengatik italiarren etortze erritmoa handiagoa egin zen, proletalgora eta arrazoi politikoagatik alde egin beharrean aurkitu baitziren (emigrazioa). Ezarritako populazio nukleoek pertsonalitatea mantendu zuten, tipologia ezberdina eskaintzen dituztelarik (eredu greko-erromatarrek, eredu sakabanatuak...).

Erromatarrek *civitas* kategoria delakotik at zeuden tokiak eredu guztiz latindarra agertzen zutelakotan *pagus* kontsideratzen ziren. Lehenengo fasean, populazio nukleo horien gehiengoa *stipendiarioa* zen, Erromari zergak ordaintzen zizkiona: erromatar administrazioak *foedus* baten bitartez zenbait populazio nukleo lotu zitzakeen, bere *civitas edo municipium*era hurbilduz.

Erromatar hiritarren kopurua ikuspegi orokorrarekin hartzerik ez zegoen oraindik, eta horregatik ezinbestekoa bihurtuko da populazio-nukleo horiek asimilatzea: *municipium* kategoria onartzen zitzaienean emango zena.

*Cives* bihurtzeko aukera asko handitzen zen horrekin: munizipioetan karga eta karguak jaso eta jasaten zituztenak *cives* benetakoa izateko eskubidea zuten ohore gisa.

Augustoren garaitik aurrera, munizipalizazio prozesuak aurrera egin zuen, baina hala eta guztiz ere Flaviotarrekin izango du munizipalizazio prozesuak goropada handiena: Vespaniok Hispania osoari latindartasuna ematean.

Hiri berriak sortzeko arrazoiak bakegintza, lurra banatzearen konpentsazioak, kontzentrazio hiritarrak eta zerga erraztasunak izan ziren. Erroatarrekin nolabaiteko harreman hitzartu bat zeukaten hiriek federatuak ziren, *foedus*. Baina gehienak *estipendiarioak* ziren, erromatarren menpekotasun osoa zeukatenak: zerga anitz ordaintzera behartuak. Hiri libreak, erromatar inolako menpekotasunik gabekoak, gutxi ziren.

## ARMADA

Armadaren eragina ez da bakarrik aipaturiko menperatze-militarrarekin gauzatzen, baizik eta gudariak zuzenean eta beren presentziaren bidez eginikoa. **H**izkuntz arrastoak direla eta soldadu gehienak italiarrak zirela dirudi: Carteia hirian emazte eta umeekin ere, K.o. 197. urterarte. Armadaren eragina baloratu beharrekoa da proletario taldeek armaden buruzagitzarekin gero eta

harreman estuagoa lortzen hasiak baitziren: negu-kuarteletan Pompaelon (Iruña) egindako egonaldi luzeek posible egiten zuten bertako soldadutzaren profesionalizazioa. *Cannabae* hiri militarrek sortu ziren.

## MERKATARITZA ETA KOMUNIKAZIO BIDEAK

Erromanizazioan garrantzi handikoak izan ziren merkataritza eta bide sarea (garia, ardoa eta olioak garraiatzeko). Meategien ustiapena zerga egituraren ordezkariaren agindupean jartzen zen. Erromanizazioaren beste zenbait faktore ere aipatu behar dira, penintsularen integrazio kulturala eta ideologikoa, bizimoduaren aldaketa eta sare administratiboaren barnean sartzea.

## ADMINISTRAZIO ANTOLAKUNTZA

Augustok menperatze militarra amaitu zuen, penintsula osoa jarri zen erromatarren administraziopean: penintsulan zehar euren sare administratiboa hedatu zuten, lurralde osoa bere kontrolpe orokorrean hartuz (oraindik ez erromanizazio sakonik).

Errepublika garaian erromatarrek lurraldeari begiratzen zioten ez populazioari: ikuspegi arrazional eta sistematikoa zen, lurralde horretan zehar mugitzeko bide sarea eraikitzekeo interesak.

Probintziaren banaketa eman zen K.a.ko 197. urtean: Citerior eta Ulterior.

*Conventus* delakoak barruti judizialak ziren, beren hiriburuan prozesu judizialen azken erabakia emateko auzitegia egoten baitzen.

## ERROMANIZAZIO KULTURAL ETA IDEOLOGIKOA

Latinaren hedakuntzaren eragina zabala eta sakona izan zen, faktore orokor bat izan zen heinean hainbat alorretan: artea, literatura, filosofia, pentsamoldeak, erlijioa.

Enperadoreenganako kultura trinkotasun berezia izan zuen. Urbanismoa eraginkorra izan zen, hirien antolakuntza eta hirietan gozatu zitezkeen antzerkia, kirola eta ikuskizunak. Klase gidarien heziketa gero eta erromatarragoa, ohituren moldaketa ekarri zuen udal oligarkien artean batez ere. Familia nukleo inportanteak sortu ziren, penintsulako hegoaldean, beren kide batzuk enperadore izatera iritsi baitziren Trajano, Adriano edo Teodosio kasu.

## EGITUREN ALDAKETA

Jabetza pribatua agertu zenean jarrera kolektibistak desagertu ziren, nekazari lanerako teknika berriak sortu ziren, eta produkzio industrial baterantz lehenengo urratsak eman ziren, merkatalagoa (talde gentilizoak desagertzeaz).

## **ERROMANIZAZIO JURIDIKO OFIZIALA**

Zuzenbide erromatarren pertsonalismoa nabaria zen hasieran, ondorioz, latindarren, peregrinusen eta erromatarren arteko banaketa nabaria zen. Pertsonalismoa erromatar hiritartasunera iristeko bide berezien bidez dezente gutxitu zen. Baina erromatar hiritartasuna modu sendoago batean hedatzeko egitate eraginkorragoak behar zituen: Vespasianok Penintsula osoan latindartasuna ematean lortutakoa.

Hala ere Vespasianok emandako latindartasunak beste hainbat erabaki ekarriko ditu, kontzesio hori abstrakzio hutsean ez gelditzeko: lege munizipalak hiritartasun osora pasatzeko erraztasunak ematen hasi ziren. Caracallak Inperio osora zabaldu zuen hiritartasuna: irizpide pertsonalistatik irizpide lurraldetarrara pasatuz. Penintsulari dagokionez, Vespasianok eta Caracallak ez zituzten aldaketa erabakigarriak bultzatu, baina errealitatean zegoen egoeraren konfirmazioa egin zuten: populazio guztiak, esklaboak ez ezik, erromatar hiritarren egoera juridikoa izan zuen penintsulan.

## **ZUZENBIDE ERROMATARRAREN ITURRIAK BEREN EBOLUZIO HISTORIKOAN**

Hispanian erromako zuzenbidea aplikatu: berezitasun asko. Zuzenbide probintzialak ez zuen berariazko arlorik bete. Erromako zuzenbidearen sortze-iturriek emandako zuzenbideak bere balio osoa izango du Iberiar penintsularako. Arazoa, zuzenbide horren hartzaileengan kokatzen da beraz, zuzenbide erromatarra irizpide pertsonalistaren bidez ezarri zenez erromatar hiritartasuna zutenei aplikatu zitzaien. Ikuspegi sintetiko bat proposatzen zuten, iturrien ikuspegia:

### **ERROMAKO ZUZENBIDEA ERREPUBLIKA GARAIAN**

Erromako zuzenbideak bere jatorrian dituen zuzenbidea sortzeko iturriek *ius civile* delakoa osatzen dute. Zuzenbidearen interpretazioa egiteko gaitasuna *patrizioen* eskuetan erori zen eta horien artean *pontifizeek* zeukaten horretarako ahalmen ososa eta eskusiboa. Plebeioek zuzenbidearen sortze-prozesuan parte hartzea ez zuten lortu, jatorrizko *ius* horren bultzatzaile bakarra *prudenteen* interpretazioetan baitzegoen.

XII. Tauletako legea k.a. 450. urtekoa zuzenbidearen aurpegi publiko bat islatzen du: herri asanbladek geroako *leges* bitartez *ius* delakoa osagarrituko dutelarik.

Hasiera batean, *komizioek* bakarrik zuten lege moduko arauak egiteko aukera: baina, fase berri batera igarotzeko aukera iritsi zen.

Plebeioen nortasun juridikoaren aitortpena *Lex Hortensiar*i dagokio; lege honek plebeioen tribuek ematen zituzten legeak eta komizioetan ematen zirenak maila berean jartzen zituen:

plebeioak magistratura ororentzako izan zitezkeen izendatuak. Plebeioek eskubide politiko eta zibilen parekotasuna lortuko dute.

Herri asanbladek legeak aberastuko dituzte: erromako herria zenturietan antolatuta zegoen arrazoi militarrengatik. Horrengatik Zuzenbide horiek demokratikotzat hartuko dira herri organoak parte hartzen zutelako: baina, komizioek ez zuten lege proposatzeko ekimenik normalean.

Zenturietan banatuta egoteagatik lehenengo mailakoek beti zeukaten beren aldeko proposamenak aurrera ateratzeko aukera gehiago, beste zenturien aurretik botoa ematen baitzuten. Plebeak bakarrik osaturiko asanbladek, *conciliumak* ziren.

Plebeen legeak beste legeen parean jartzerakoan, legeen arloa mugatu zela esan dezakegu Baina, Legeak ez du bere lekua galduko legeen bidez sortutako zuzenbideak interpretazioaren onarpena behar zuelako: Interpretazioak zabalera handiagoa izan zuen *prudenteen* eskuetan eroriz, jurisprudentziak bere jatorrizko kutsu erlijiosoa galduko duelarik.

Jurisprudentzia iturri sortzailatzat joko dugu; baina erromako zuzenbidean beste elementu oso inportante bat ere agertuko da: laikotasunaren agerpena (zuzenbidea egikaritzekoan baliabideak pretorearen eskutan egongo aurrerapaso garrantzitsua).

Pretorea pontifizeengatik guztiz independentea izango da: bide prozesal berriak jorratzen hasiko ditu Ius civilek praktikan behar zituen instituzio berriak sortuz. Per formula sistemara igaroko dira (Legis actioneak atzean utzi): onartu gabeko harreman motak babesteko balio.

Ius civileren alboan magistratuen eskumenari zegokion zuzenbidea eratu zen: a) prudenteen interpretazioa, b) zuzenbide legitimoa, lege eta plebiszituak eta d) Magistratu eskumendunek sortzen zuten ediktuzko zuzenbidea: “ius honorarium” (pretore) eta “ius civile”a.

## ERROMATAR ZUZENBIDEA PRINTZEGOAN

Senatuaren kontsultak printzearen borondatearen azalpena bihurtuko da. Pretoreen funtzioa, enperadoreen influentziapen eroriko da, haien legeak sortzeko ahalmena erabat murrizten baita.

Salvio-Julianok, Edictum Perpetuum idatzi zuenean pretoreen ediktugintza bukatutzat eman dezakegu. Prozedura sistemaren aldaketak oso eragin handia izan zuen, enperadoreek kontrolaturiko justizia administrazio sistemara pasatzean. Jurisprudentzia ere enperadoreen alorrera pasa zen, enperadoreek bultzada handia eman zien burukrazia berezi bat sortuz eta aholkuritza politiko juridikoari toki izugarria eskainiz.

*Cognitio extra ordinem* sistema prozesalak ere jurista adituen presentzia eskatzen zuen Printzearen auzitegi gorenean.

## ERROMAKO ZUZENBIDEA DOMINUS-AREN GARAIAN

K.o III mendeko azken hamarkadan enperadorearen botere gehitua finkatu zen.

Enperadorea, *dominusa* bihurtu zen, bere borondatea zuzenean lege zen, monarkia absolutua azalduz: printzearen borondateak lege indar zuzena.

Enperadorea legeak bete beharretik at: senatua ia desagertu egin zen zuzenbidearen sortze prozesuan. Enperadoreek beren lege sortzeko ahalmena ediktuen bidez gauzatzen zuen lege orokorren balioa izateko tresnarik egokienak zirelakoan. Erreskriptuak arazo partikularrak konpontzeko erabiliko dira.

Enperadorea legearen iturri bakar bezala agertzen da beraz, ordenamendu juridikoaren sinplifikazioa eta bereizketak desagertuko direlarik. Aurretik indarrean zegoen zuzenbidea *iura* kontsideratuko da, juristen idazkietan zegoelako indarrean zegoen zuzenbide gisa.

Konstituzio inperialen ugaritzeak legeria ugaria menperatzearen beharra ekarriko du errekopilazioen bidez bildumatu zen legeek osatzen zuten arloa.

## ZUZENBIDE ERROMATAR ARRUNTA

Erromatar zuzenbide arrunta erromatar zuzenbidearen aztertzaileak ateratako kontzeptua da. Erromatar Zuzenbidearen arrunteraztera eramaten duten ezaugarriak:

Oto Brunner egindako latin arruntaren eta zuzenbide arruntaren arteko bereizketa kontuan hartuta ezberdintasuna zuzenbide ofizialaren eta praktikokoaren arteko bereizketan datza.

Mitteis egindako bereizketaren arabera, zuzenbide bulgarra eta herrikoia arteko ezberdintasunean oinarritzen da. Zuzenbide erromatarra praktikakoa izango litzateke.

Levyk orientazio berri bat eman zuen, praktikako zuzenbide eta zuzenbide ofiziala berdinduz; Praktikako zuzenbidea Zuzenbide Ofizialaren produkzio mailan egongo da, errealitate praktikoa eskatzen zuenari erantzuna ematearen beharrak zuzenbidearen arruntaraztea dakar.

Wiackerrek klasizismoa eta bulgarismoa bereizten zuen.

Kasek, Erromatar Zuzenbideari: Maila estilistokoa, Logika eta barne disziplina galtzea. Dagoen zuzenbidearen eta izan behar lukeenaren arteko nahasketa ematea. Errotorikaren eraginagatik zehaztasun falta eta sistematizazio gabezia eta Kristautasunaren influentzia nabaria.

Gaudemet: esanahi zorrotza eta mugak galtzea eta baldintzetan zuzenbide klasikoaren egitura galtzea

Hau da, Erromatar zuzenbidearen arruntaraztea pragmatismoaren eraginez, helburu praktikoen nagusitzeko jarreraren ondorioz ematen da: Inperioko azken fasean erromatar zuzenbidea arruntarazte bidean oso sartua: europako mendebaldean, inperioa erori ondoren, zuzenbide erromatarraren erabilera bulgarizatua.

## **2. ZUZENBIDE BISIGODOA**

### **BISIGODOEN ETORRERA**

Godoeak, jatorrian Eskandinaviatik etorritako herri germaniar bat. Godoeak euren lurretik mugitu beharrean aurkitu ziren, arrazoi ekonomiko, klimatiko eta demografikoengatik: bizimodua aurrera ateratzeko behar zituzten baliabideen faltan.

Esan behar dugu, Europako ardatz bezala Danubio eta Rhin ibaiak hartuko ditugula Europako muga gisatzat: bisigodoak Danubio inguruan kokatu ziren Dacia probintzian, eta handik hegoaldera abiatu ziren.

Hispaniara heltzean sueboak menperatu zituzten, eta bandaloak kanpora bidali zituzten, Afrikara pasatuz: beren erresuma eraikiz.

K.o. II mendean Danubio aldera mugitu ziren bi taldeetan banatuz a) bisigodoak, mendebaldeko godoak eta b) ostrogodoak, ekialdeko godoak.

Inperioko Dacia delako probintzian (egungo Erromanian), lehenengo kokapena: 375.an alde

Behin betiko kokapen baten bila ibili ziren; Trazian aurkitu (egungo Bulgaria) Valente enperadorearen baimenaz. Bisigodoak une horretan arrianismoaren jarraitzaileak ziren, enperadoreak erlijio kristauera bihurtzeko nahia azaldu zuen arren. Laster, Kristautasuna sinetsi eta barneratu zuten.

Dacian bizi izan zirenez euren hizkuntza ein batean galdu zuten, euren bizimoduan ere aldaketaren bat izango dutelarik.

Bisigodoen baitan bi joera azaldu ziren: erromaren aldekoa eta erromari betiko gorrotoarena

Garai horretan erromatarren aurkako gatazka indartsua sortu zen: Adrianopoleseko gatazkan (328. urtean) bisigodoak galtzaile atera zirelarik. Hortik aurrera erromatar inperioan integratzeko joera gaindiezina izan zuten, errege moduko lehen agintariak sortuz (tribuen buru) *iudex* bereziak izatera pasatu ziren.

Alarikok, errege tituluarekin, Inperioan zehar bere herria bideratu zuen: Erromaraino sartu zen kristauen hiriburua zelarik 410. urtean erre eta sakeatu zuten Bisigodoek.

Ataufok, Alarikoren ondorengoak, erromatarren aldeko politikari eutsiko dio Honorio enperadorearen alabarekin eskonduz. Bisigodoek, testuinguru horretan *iur promestua* lortu zuten,

hitzarmen baten bidez Walia erregeak Honorio enperadorearekin, politika kolaboratzaile sutsua hitzartu baitzuen.

Inperioaren egoera militarra ahultzean bisigotiarrek defentsa funtzio gisa Akitania bigarreanean kokatu ziren hiriburua Tolosa zutelarik: frankotiarren eskutik lurralde galdutzat hartzen zen Erromatar Inperioarentzat.

Tolosako erresumak horrela bere indar eta nortasun propioa lortuko du; erregeak Teodoriko I, Teodoriko II eta Euriko: lurralde horren administrazioa euren eskuetan erori zen Inperioaren agintea formal hutsa zen.

Bisigodoak Galian bizi zirenean, Euriko erregearen papera azpimarratu behar da: Mendebaldeko Europa boteretik indartsuena lortu baitzuen (ekialderantz, Marseillarentz, hedatuz Arles hiriburu garrantzitsua bihurtu). Inperioa erortzean Eurikok Inperioarekin izan zitekeen loturak hautsi zituen: probintziako prefektuak egin zitzaizkion bere prefektuaren bitartez beteko da: galeo-erromatar guztien errege bilakatuko da.

Tolosako azken erregea Alariko II izan zen: 507. urtean frankotarrek egindako eraso jaso eta bisigodoak Hispaniara heldu ziren (kokatzeko eta erresuma eraikitzeko asmoarekin)

VI. Mendean Iberiako penintsulan bisigodoak egongo dira, historiaren fase berri bat hasiz: nahiz eta gutxiengoa izan botere militar eta politiko nabarmena lortuko dute bertako nobleziarekin egoera finkoa eta sendoa lortu baitzuten, hala ere penintsularen egoerara moldatu behar izan ziren.

## BISIGODOAK. POWER POINTA

V. mende bukaerarako bisigodoak iberiar penintsulan finkatu ziren.

Suevoek kontrolatzen zuten iparraldeko eremuaz gain iberiar penintsula bisigodoen menpe zegoen. VI .mendean, suevoek iparraldearen jabeak ziren, bisigodoak ordea penintsulako beste lurraldeetan finkaturik zeuden. Bi herrien artean tirabirak izan zituzten eta batak besteari lurraldean kendu eta berreskuratu egin zituzten. 746 urtean Elteredo de Merciarene hezkutiz batek erreinu bisigodoen bukaera supoastu zuen. Izan ere 710 urtetik aurrera oinordekotza gudak eman ziren, Witizaren heriotzaren ondorioz. Gainera bisigodoen botere galerarekin batera musulmanen inbasioaren urteak etorriko ziren

Tolosako erresumako erregeak:

**Ataulfo:** Alarico I.-ren ondorengoa, Hispaniako lehendabiziko errege bisigodoa. Inperio Godoa sortzeko idea zeukan. Honorio enperadorearekin tratatu bat sinatu: Erromak Galia eta hornidura



aitortzen zien bisigodoei, Ataulforen arrebaren truke. Bisigodoen botere politikoaren benetako fundatzailea.

**Walia:** Ataulforen anaia, Sigericorekin tronuaren borroka osatu. Tratatu berria Erromarekin: herri barbaroak kanporatuko zituzten elikagaien truke. Tolosa hiriburu finkatu.

**Eurico:** Bere anaia Teodorico II. erail ostean errege bilakatu. Inperio Erromatarraren bukaerarekin bat etorri. Galia eta Hispaniako zenbait lurralde bereganatu zituen.

**Alarico II:** Euricoren semea. Voullié borrokan zendu zen, Tolosako Erresumaren desagertzea suposatu zuen.

**Amalarico:** Bere aitite Teodorico Handiaren ondorengoa, Espainiara eraman zutena Italiatik. Errege gazte honek bere lehengusuarekin italiar eta hispaniar mugak adostu zuten.

**Leovigildo:** Liuva I. ondorengoa. Kanpaina ugari egin zituen; famatuena garaiko Victoriaco hiriaren kontra egindakoa, Vasconia kontrolatu ahal izateko.

**Recadero I:** Leovigildoren ondorengoa, erregealdi liskartsua eta zaila izan zuen. Ekimen azpimarragarriena Toledoko III. Kontzilioa; bertan, erresuma katolizismora bihurtzea adostu eta bisigodoen eta hispaniar-erromatarren arteko bateratze erligioso ahalbidetu zen.

**Recesvinto:** Bisigodo eta hispaniar-erromatarrentzako legea sortu zuen: *Liber Iudiciorum*, zuzenbide berbera eta bateratua ezarriz.

**Wamba:** Recesvintoren ondorengoa. Hainbat gatazka: arrianoak katoliken aurka, hispaniar-erromatarrek bisigodoen aurka, nobleak monarkiaren aurka. Gainera, inbasio arabiarrei eta Septimaniako liskarrei aurre egin behar izan zien. Bererakin hasi bisigodoen gainbehera.

**Rodrigo:** Toledo Erresumako azken errege bisigodoa. Bukaera arabiarren aurka heldu zen, Gaudalete guduan. Horren ondoren, Septimania azken probintzia bisigodoa arabiarren eskuetara igaro zen.

## **BISIGODOEN LEGEGINTZA**

### EURIKOREN KODEA

*Historia de Regibus Gothorum*ean Isidoro Sevillak ematen digu berri: Euriko lehenengo errege bisigotiar legegilea izan zenarena.

Euricoren garaian bisigodoen erresuma mendebaldeko botererik handia izatera iritsi: inperioarekiko lotura formal soila zuelarik. Bisigodoek enperadoreari laguntza emategatik funtzio sendo bat bereganatu zuten: inperioaren egituraz baliatu ziren.

Prefektuaren funtzioa Inperioa erortzerakoan ere desagertu zen, bisigodoek horren lekua hartuz. Ediktuak emango dituzte bisigodoek berariazko boterea erabiliz, baita ere jurista eta adituen kolaborazioa: Leon Narbonakoarena eta Martzelianorena (erromatar zuzenbidean adituak).

Eurikoren legegintza beraz, ediktuak emateko ahalmenean oinarrituko dugu: goi mailako erromatar magistratu bat bezala. Ediktuek, legearen ikuspegi partikularrak zehaztu eta argituko dituzte, legearen funtzio orokorra maila zehatzetara eramenez (lege orokorra beharrezkotzat jotzen zen: zuzenbide erromatarraren markoan ematen zelarik).

Teodoriko II.ak *Edictum Teodoricii Regis* delakoa onartuz Eurikoren kodea Teodorikoren ediktuen ordezkari jarri zen.

Eurikoren kodea XIX. mendean zati bat aurkitu delako ezagutzen da: 31 kapitulu (276-310) ditu. Agiri horretan azaltzen ez diren kapituluak ezagutzeko bidea “*liber liberiorum*”aren *antiqua* legeetan aurkituko ditugu, baita ere hainbat lege germaniarretan. Berreraikitze lan hori egin eta gero Eurikoren Kodea 350 kapituluz osatuta zegoela esaten da.

V. mendean zehar zuzenbide erromatarraren interpretazio zabal eta ugaria aurkitzen dugu bisigodoen artean: Eurikoren kodearen iturriak ezagutzeko egindako konpilazioetatik bat interpretazioa dela kontutan hartu beharko dugu beraz.

Kodearen helburua baliteke zuzenbide ofizialaren (zuzenbide erromatarrarena) eta praktikoaren (zuzenbide erromatarra zehazteko bidea) arteko tartea gutxitzea izatea; zuzenbidea berritu beharra agerikoa zen: zuzenbidea arruntaraztea. Horregatik zuzenbidea modu arruntean agertzeko beharra nabaria zen (Eurikoren kodea Z.E. Arruntaren isla)

Eurikok bere kodea bultzatuko du zuzenbide praktikoa hartuz; ediktu gisa emandako lege multzoa zenbait instituzio arautzeko modua garbia islatzen dute.

## ALARIKOREN BREBIARIOA

Zuzenbide orokorraren markoa, marko zabala: Eurikoren kodeak ezin zuen dena bete, heldu leku orokor hori betetzeko Zuzenbide Erromatarra.

Jurisprudenzia finkatzea ezinbestekoa da legegilearen funtzioa ulergarriakoa eta ziurragoa bihurtzeko.

Teodosio II. ren garaitik egoera erabat aldatu zen jurisprudenziaren arloan: 426ko “aipu-legeetan” agertutako autoreen erabilera ulertu ezina zen, hainbat iturri desagertu baitziren.

Erromatar zuzenbidea arruntarazteko prozesuan zuzenbidea jatorrizko iturrietatik gero eta urrunago kokatuko da: jurista bisigotiarrak lan hori aurrera eramango dute, zuzenbide erromatarraren interpretazioa emaitzatuz joz.

Alariko Iak Brebiarioa eratuko du Gaioren instituzioak laburtzean, Teodosioren Kodeko lege bakoitzaren berariazko interpretazioa eginda zeudelarik.

Alarikoren Brebiarioaren eskuizkribu gehienak Frantziako hegoaldean aurkitu dira; bat Espainian, Leonen. Haenek egindako edizioa baliozkotzat hartuko horiek ezagutzeko.

*Commonitorium* batekin hasten da, sarrera gisa erregeak eman behar dituen aginduekin testua aplikagarria izateko. Bi arlo bereizten dira: 1) Legea: Teodosioren kodetik hartutako legeek osatzen dute (400 bat bilduz), horren ondorengo enperadoreek emandako beste hainbat konstituzio agertzen zaizkigu: 12 Teodosiorenak, 13 Valentiniano IIIrenak, Marzianoren 3 eta Severoren 2 (Konstituzio bakoitzak bere interpretazioa izango du) eta 2) Jurisprudentzia: *Liber Gaioren Epitomeai* delakoa osatzen du (17 titulu), interpretazio gisa hartu zen eta Pauloren sententziek beste parte bat osatuko dute horietako bakoitzak bere interpretazioa zuelarik. Kode Gregoriano eta Kode Hermogeniano (bakoitzatik 22 eta 2 Konstituzio) jurisprudentzia barnean sartzen dira, bilduma pribatuak baitziren. Papinianotik 1 hartu.

VI. Mendeko Europa: bisigodoak frankotarren aurka galtzaile atera ondoren, Hispanian kokatu ziren (Pirineotatik bestaldera Narbonako probintzia soilik mantenduko dutelarik).

Ostrodogoek Italiako erresuma hartuko dute, Burgandiak gero Borgoina izango den lurraldean kokatuko da: erresuma eskainiz.

Ekialdeko Inperioak Justinianoren garai ospetsuak biziko ditu: mendebaldean erresuma ezberdin horiek jaio zirenean: zuzenbide erromatar arruntaren biderei jarraituko zaio, lege “barbaroak” eskainiko dira (bisigodoenak, burgundioenak eta barbaroenak).

Goi erdi aroko giro berezia testuinguru horretan sortzen da, zuzenbide sakabanatu eta ohituraren oinarriturikoari lekua emanez, zuzenbide itxura minimoko bat mandendu ezin zelarik.

## LIBER IUDICIORUM

Bisigodoek euren bilakara juridikoa honen bitartez gauzatuko dute.

Toledoko erresuma finkatu ostean, Errezesbinto erregeak bere mendeko guztientzat lege orokorra eman zuen: salbuespenik gabe (lurraldetasunari loturik).

Liberrak erregearen lege eskusiboa zen: lege guztiak elkarrekin identifikatzeko modua.

Erregearen eskuetan agertuz, honi zegokion bakarrik legea ematea eta berak nahi izan zuen lege osoa liburu batean integratzea: legea = zuzenbidea = erregearen liburua. Legea sortzeko ahalmena erregeak izango du, baita ere interpretazioarena hutsuneetan.

Liberra Behe inperioko tradizio absolutista bere baitan hartzen zuen, enperadorearen lege osoa bereganatzeko joeran oinarrituz. Zuzenbidea beraz, idatzi/liburu gisa agertzen zaigu: orden eta sistematizazioarengatik.

Ohitura eta jurisprudenzia baztertzen dira: lege itxura ez duen iturri guztiak alde batera utzi

Edukia eta aurreko tradizioa zuzenbide honen guztiahaltasuna islatzen du: liburuan zuzenbidea batu eta tradizioarekin loturak mantenduko dira aldi berean. Debekatuko da liberrak edozein herrien legeek erabiltzea erromatarrarenak bereziki (zuzenbide erromatarraren etena): jakinduri maila hutsuneetan bakarrik erabili ahalko da

Bisigodoek euren botere eskusiboa izateagatik liberra sortuko dute, nabaria izan zen Hispanian Leobigildoren erregealdian (573-586): honek izango du lehen aldiz errege eskusiboaren papera, legegintza lanak horretan oinarrituz. Ondorengo erregeek bide erraza aurkituko dute, legegintza prest baitzegoen beraien helburu nagusien bila abiatzeko: bildumatzea legea adierazteko modu egokiena izango da (nahiz eta tradizioaren ikutuak bere gain hartu euren legeak sortzeko ahalmena z. Iturri bakartzat hartu)

Errezesbintok Liberra promulgatu zuenean, errekopilazio lan bat egiten hasia zen: aurreko legegintzari konfirmazio berezi bat ezartzeko nahian (ez errekopilazio hutsa, berrikuspena). Errezesbintok bildumatutako 500 lege baino gehiagoetatik 87 berarenak izango dira bakarrik, 99 lege bere aitarenak Txindasbintorenak, (baina horiek bere liburuan sartzea erabakitzerakoan arauak hautatzen ditu, lege indarra emateko asmo garbia erakutsiz: konfirmaziorako bultzada) + Rekaredoren 3 eta Sisebutorenak 2 + 324 antzinako legeenak.

Hainbat liburutan berezitako bilduma baten aurrean gaude, nolabaiteko sistematizazio irizpidez eginiko bilduma: lege bakoitzaren aitatasuna hiru posibilitate nagusi dituelarik:

o Legea antzinakoa, *antiqua*

o Legea antzinakoa eta emendatutakoa, *antiqua emendata*

o Errege ezagun batek emandakoa, horren izena jarritz.

Hautatze prozesua: ez dira har zitezkeen arau guztiak hartuko, baizik eta hautatzen dira, batzuk onartuz eta beste batzuk alde batera utziz: emaitza, liburu eskusibista (legea osorik beragatzen duen liburua). Liberra eskuizkribu anitzetan agertzen da, bertsio ezberdinekin: arazoa, eskuz idatzitako eta eskuz errepikatutako lege testu guztietan planteatzen den problema besterik ez da. Bi posibilitate ditugu arazo honen aurrean a) Egokitzat hartzen dugun bertsioa hautatzea eta b) Bertsio guztien idazkera bat egitea.

Beharrezkoa da komunitate zientifikoak testuaren bertsio bakarra eta berdina erabil dezan: liburuaren eduki eta orden bakarra izatea: XX. Mendearen hasieran adostasun hori lortuko da (Zeumerrek argitaratutako “*Monumenta Germaniae Historica*” bisigodoen legeak argitaratu, Euricoren Kodea, Liber Iudicioruma/Lex Visigothorum)

Liberraren Lehenengo erredakzioa Errezesbintok egindakoa 654. urtean (arestian azaldutakoa) da.

Bigarren erredakzioa Erbigio erregeak egin zuen, Errezesbintok emandako 3 lege eta *antiqua* bat kenduz: legeen ehuneko 50 baino gehiagotan interpolazioak sartu zituen (jatorrizko testuetan ez dauden hitzak). Toledoko XII. Kontzilioarekin batera promulgatu zen 681. urtean: hori dela eta, juduen aurkako 28 lege onartu eta kodean ezarri ziren XII. Liburuaren III. Titulua bezala (helburua: juduen usadio eta errito publikoak debekatzea). Hala ere, ez zuen bere helburuak lortu, argitasuna eta ulergarritasun atzerakada bat eman zuelarik.

Egika erregeari 14 legeen autoretza emango zaio baina ez ziren horiek promulgatu. Egikaren influentzia hala ere nabarmena izan zen bisigodoen garaiko erredakzio pribatuetan eta VIII. Mendeko *vulgatae* erredakzioetan. Liberra mantendu nahian bertsio anitz agingo dira goi erdi aroan, gaztelerazko “Fuero Juzgo” esaterako. Beraz, goi erdi aroan *vulgata* erredakzioei Atariko titulua, zuzenbide bisigodo politikoaren oinarriak eta lehen liburua (legeriari buruzko sarrera erretorikoa) erantsiko zaizkio Isidoro de Sevillako printzipioak erabiliz.

12 liburuetan banatzen da, baina kontutan hartu behar Atariko titulua eta lehen liburua.

Beraz, Libera jatorrian 11 liburu izango zituen:

1II. Liburuak zuzenbide prozesala

2II. Liburuak: ezkontza (erregimen ekonomikoa eta familiarekin harremana duten delituak (bahiketa, bortxaketa, adulterioa).

3IV. Liburuak: oinordetza (Brebariotik hartuko da titulu oso bat, ezkontzaren erregimen ekonomikoari buruzkoa, irabazpidezko erregimena.

4V. Liburuak: ondasunak. Dohaintza.

5VI, VII, IX. Liburuak: Zuzenbide Penala

6X. Liburuak: Servus edo morroien erregimen juridikoa. Preskripzio epeak.

7XI. Liburuak: mediku eta ehortzaileak. Merkatariak.

Eliza Katolikoak Izugarrizko influentzia izan zuen bisigodoen erresuman: kontzilazioek emandako kanonak ez ziren lege balioarekin promulgatzen, ezin daiteke kesian kontzilazioek lege ematea zeukatenik. Hala ere, kontzilazioaren kanonak har zezaketen, erregea eta eliza elkarren osagarri eginez. Eliza eskaintzen zuen babesa beharrezkoa zuten erregeek: elizak erabaki zezakeen noiz merezi zuen erregeak bere kargutik kentzea (adb. Suintila botatzea erabaki 632ean)

Liberrak egitura politiko teorikoa planteatzen du erregearen eta mendekoen erlazioan: subditoek berdintasun hutsean baleude bezala (ordemendu guztiz legalista, errege z.). Praktikan, berezitasunak, batez ere II. Liburuari gagozkionak: biztanleen artean eza dagoela benetako berdintasunik.

Morroi kondizioa zutenak ezin zuten bere kabuz auzitegiara joan: beren *domini edo patroni* delakoaren ordezkartza behar zuten. *Domini eta patronien* eragin soziala oso indartsua zen: batez ere bere menpean zenbait jendi morroi gisan ziztuzten lur jabeek beren bideak zituzten epaileengan influentzia lortzeko. Erregearen justizia monopolista horrek itxurazkoa, azken finean jaunen eta elizaren laguntza beharrezkoa zuen botere eraginkorra izateko.

## FORMULARIOAK

Kontserbatutako formularioak balore handikoak izango dira (gutxi direlakoan). \_Espainian aberatsea Kordobako Notario baten formularioa da, 46 formulaz osatua (pertsonek gaitasun juridikoa, ondasunak, ezkontza eta oinordetza arloak hartzen zituen). \_Negozio juridiko hauek, prestatutako formula erromanizatuak dira, Alarikoren Brebiarioaren ingurutik ateratakoak.

## ZUZENBIDE KANONIKOA

Eliza bisigotiarrek kontzilio asko deitu zituen: hartutako erabakiak ez zuten baliorik mundu zibilean baldin ez bazitzairen efektu hori onartzen. Kontzilioen zeregin erlijiosoa beraz efektu zibiletatik bereizten da.

Zuzenbide kanonikoaren bildumatze lana bikaina izan zen (bisigodoena), V.mendean Capitula Martini eta VII. Mendean Epitome hispanico delakoak. Hispaniar Collectio canonum Ecclesiae delakoa nabarmena izan zen. Greziar, Afrikar, Galiar eta Hispaniar kontzilazioetako kanonak

jasotzen ditu *COLLECTIO CANONUM ECCLESIAE* delakoak: Isidoro Sevillakoak bilduma hau egin zuela uste da.

### **3.ZUZENBIDE MUSULMANA ETA ZUZENBIDE HEBRAITARRA**

(ERAGINA IBERIAR PENINTSULAN)

#### **ZUZENBIDE ISLAMDARRA**

Islamdarrek komunitate erlijioso bat osatzen dute: Arabiako basamortuetan jaio zen Mahomet 40 urte zituenean mendira erretiratu eta errebelazioa izan zuen Gabriel aingeruaren ahotik: *AL CORAN* errezitazioa liburua sortuz.

Mahomet, bere prefikuarekin hasita Medina hirira ihes egin zuen (islamdarren denbora zenbatzeko hasiera eman, Kristo ondorengo 622an).

Erljio berri honek denbora gutxi barru izugarri hedatu zen, komunitate zabal bat sortuz, musulmanak. Amankomunetasuna: menekotasuna (islam: islamdarrak bihotzez men egiten diotenean jainko bakarrari), fededunez osatutako komunitate honek muga guztiak gainditzen ditu (fede berekoak besarkatuz), gerra santuaren bitartez konkistagarriak izango dira lur sailetatik kanpo daudena.

Mahomet hil ondoren egoera larria sortu ondorengoan artean; *sunnitak* garaile atera zirenak izan ziren, profetaren portaera *sunna xaria* betetzeko baliagarritzat hartzen zutelako.

Beste taldea, *Xiitek* osatuko dute, Mahometen suhiaren zaleak zirenak, partaideak. *Kalifa edo Jalifa* fededunen gidaria izango da; islamismoak oso konfesionaltasun sendoa jaso zuen, gero lurralde gehiagotara iritsiz. Fededunek bidea jarraitu behar dute, *xaria*.

#### **ISLAMDARREN ZUZENBIDEAREN ITURRIAK**

##### **KORAN**

Islamdarren zuzenbidea, bide zuzena ezin daitekena *xariatik* urrundu. Liburua da, lehen maila kokatu behar dena 114 atalez osaturikoa: eduki juridiko zuzena daukaten *sura*/atalak ehuneko 10a baino ez dira.

##### **SUNNA**

Oinarrizko iturria korana baldin bada ere, korana osagarritu daiteke: Mahomet bera izan zen liburu eta erlijio hau jaso eta aplikatu zuena, bere portaerak liburuak esaten zuena osatu behar zuen. Profetaren bizitza ezagutuko dutenak bere ondorengoak izango dira, ahoz aho transmitituz, tradizioz. Profetaren portaera fededunen eredu izan zedin beharrezkoa zen portaera horiek jasotzea: IX.mendean, *hadiz* delakoak egin ziren *sunnaren* narrazioak, barnekotasunaren bermeak.



## ICHMA

Profetaren portaeraren aldamenean, komunitate islamdarren portaera dago. Gehiengoak hartutako jarreak segurutzat ematen dira, uste delako gehiengoa ez dela okerrean eroriko. Herriak onartutako da, ohiturarik hurbiltasuna duena.

## FIQH

Arestian aipatutako iturriak osagarritzeko ondorio eta xedapenak atera beharko dira, oinarrietatik urrundu gabe.

Gizakiak bere gaitasun propioak ditu printzipioak errespetatuz analogiaren, ekitatearen eta utilitatearen bitartez (arauen espiritua errespetatuz) bere hitzetan zuzenean jasotzen ez den kasu batera aplikatu ahal izateko.

Aholegegileak behar ditu, juristak: oinarritzko iturriak interpretazio beharrean daudenez arazo bat sortzen da, juristek ez dute interpretazio berbera izango (oinarritzko iturria errespetatzeko zorroztasuna ez da berdina izango).

Interpretazio horiek direla eta hainbat eskola sortu ziren: 1) Eskola liberala; Irekiena Abunaifa juristaren eskola izan zen, iturrietatik urruntzeko gehien prest egon zena. (irizpide zabalez interpretazioak egiten dutenak) eta 2) Eskola moderatua; Malicen eskola, penintsulan islamdarrak kokatu ondoren bertan inposatu zena.

Juristek egindako lanek jurisprudenzia doktrinalaren arloa eramaten gaituzte: Beriteko eskolatik jaso zuten islamdarrek erromat zuzenbidearen eragina (jurisprudenzian agertu).

Hala ere, zuzenbide islamdarrak kodegintza garaian kode-moldeak hartzen ditu zenbait nazio musulmanetan (Maroko, Frantziako 1804ko kode zibilaren eraginpean edo Sirian). Turkian ere eredu europar itxura hartu zuen kodegintza, orohar zuzenbidearen berriztatzea *najda* delakoaren, islamdar berpizkunderako mugimendua, bultzadarekin etorri.

## **ZUZENBIDE HEBRAITARRA**

Zuzenbide erlijiosoa monoteismo itzelaren isla: herri ibiltaria, semitikoa kokapen finkoa lortzean David eta Salomonen garaian bere gailurrera iritsiko dira: *Diaspora* I. Mendean jasan zuten eta horregatik hainbeste toki ezberdinetan kokatu behar izan zuten.

Zuzenbide kanonikoarekin, Biblia izanik iturria, zerikusi asko: zenbat instituzio zuzenbide hebraitarren emaitza tipikoak izango dira: hautapen sakratua eta hamarrena.

## ZUZENBIDE HEBRAITARRAREN ITURRIAK

Biblia. Pentauteko edo Tora. Forma definitiboa 450ean hartzen du, osatzen duten liburuak: Genesis, Exodo (Alianzaren Kodea), Levitico (Sazerdoteen kodea, ezkontza eta z.penala), Numero, Deuteromio eta Dekalogo.

Toranaren interpretazioa: Mendean, Y. Hanassi rabbiak idatziz jarri zuen, hortik Michna izena jasoko du.

Michnaren interpretazioa: Guemara deitzen zaio, bien artean Talmud osatzen dute.

Talmudaren formulazioa: Talmudaren formulazio onartuak, Maimonidesek XII. Mendean egindakoa eta J.Carok egindakoak dira

### 3.GOI ERDI AROKO ZUZENBIDEA

#### 4. FEUDALISMOA

Inperio erromatarra desegitean erresuma ezberdinak sortu ziren: bisigodoak, frankoak, lobardoak... Erresuma hauen Erregeak askotan ezin zuten lortu beren aginte politikoa eta konpartitu egin behar zuten beste ente eta subjektuekin; honela, gizarte-agintea eta aginte politikoa zeukatenen artean ezinbesteko harremanak sortu ziren. Erregearen azpian, indar sozial eta politiko ezberdinen jabe talde anitz zeuden. Aginte-eremu propioa zuten, lur sail baten jabe zirelako eta bertan bizi zirenak lurrari lotuta zeudenez, zenbait eskuduntza zituen espazio horretan bizi zirenengan. Egitura piramidal bat sortu zen, goiko puntuan erregea kokatzen zen eta bere azpiko mailatan beste agintedunak, hau da, jaunak. Piramide honen azpi-azpian ezer ez zeukatenek eta inoren jaun ez zirenak kokatzen ziren. Erromatarrekin konparatuta egon zen aldaketa, gizartearen egitura eta boterea egikaritzeko molde berria datza. Gizataldeetako kideen artean beste harreman motak sortu ziren. Jaunak militarizatu egin ziren eta botere ekonomiko hutsa izatek botere jurisdikzionala eta militarra izatera pasa ziren. Jaun hauek botere maila handikoak zirenean, bere menpean zeuden beste gizon askeen (“sujet”) kide-lana eskatu behar izaten zuten; lan honen truke jaunak “*beneficium*” ematen zien, jasotzen zen ondasunari “*feum*” edo “*feodum*” deitu zitzaion. Horrela, feudoak hedatzearekin zabaldu zen Europan zehar feudalismoa, erregeimen sozial eta politiko propio bat sortu zelarik. Horregatik esaten da feudalismoa gizartea antolatzeke modu bat dela. Feudalismoa, jaunak eta sujet askeek beraien artean zeukaten erlazioek osatzen zuten sistema sozial eta politikoa izango litzateke. Goi Erdi Aroko Europako mendebaldeko gizarteak forma horiek hartu zituen, eta forma horien kanpo-ezaugarrien arabera sistema feudala sortutzat eman zen. Sujet-ak jaunarenganako laguntza armatua eta aholkuak emateko obligazioa dauka (“*auxilium*” eta “*consilium*”).

Merkataritzak Goi Erdi Aroko egitura feudalak aldatu zituen. Jaunen eta nekazari-jopuen arteko erlazioak ere aldatu egin ziren, diru metalikoagatik. Behe Erdi Aroan, erregeek maila berean zeukaten nobleziagandik gora joko dute, sistema osoaren gidaritzaren bila; legegile bihurtuko dira eta beren erabakien bitartez gizartea bideratzeko pausoak emango dituzte. XII. Mendean Europa osoan egitura sozio-ekonomikoa feudalismoaren bigarren aroan kokatzen da.

## **5. OHITURAZKO ZUZENBIDEA EUROPAN ETA PENINTSULAN**

Ohitura, herriak portaera bat errepikatuz sendotasuna lortzen du eta azkenean obligaziotzat hartzen dute ekintza hori. Bere sorrera espontaneo da, naturala, inork bultzatu gabekoa; ezin da identifikatu bere sortzailea (herriari ematen zaio meritu hori), denbora pasa ahala indarra hartzen doa eta zuzenbide-indarra hartzen dute. Hala eta guztiz ere, noiz kontsidera daitekeen benetan loteslea epaileak erabakiko du. Bere naturaltasunagatik ez dago idatzi beharrik.

Botere politikoa indartsua denean berak kontrolatzen du zuzenbidea eta legeen bitartez bideratzen du gizartea. Epaileak eta doktrina legearen zerbitzura jartzen dira eta bertan ohiturak ez du aukera handirik. Baina botere politiko legegilea ahultsen denean sortzen diren hutsuneak ohitura beteko ditu. Erromatar inperioa erortzean, hutsune politikoa sortu zen eta ohiturak bete behar izan zuten. Botere publikoaren ahultasunak ohituraren bizitazuna dakar.

## **GOI ERDI AROKO ZUZENBIDEA IBERIAR PENINTSULAN**

VII.Mendearen hasieran islamdarrek penintsulan sartu eta finkatu ziren. Gizarte egituran ez ziren gauza askorik aldatu baina ikuspegi juridikotik bai, irizpide pertsonalistarekin aplikatuko dute zuzenbidea, musulmandarrek bakarrik gozatu ahal izango dute zuzenbide islamndarra. Kristauak eta juduek beren zuzenbidea mantendu zuten. Islamndar lurraldeetan bizi ziren kristauak “mozarabe” deitzen ziren eta Liber-aren tradizioarekin bizi ziren. Bi toki Liber-aren lurralde propio bezala: Katalunia eta Leon. Beste erresuma kristauetan zuzenbide pertsonalismo eta lokalismo hutsukoa sortu zen (bakoitzaren zirkunstantziaren arabera). Ondorioz, Liber-ak ez zeukan aurreko indarra baina ez da desagertuko, toki guztietan bere arrastroak izango ditugu: legearen espiritua eta autoritatea. Bisigodoen Monarkia erortzeak botere publikoaren desagertzea ekarri zuen eta ondorioz, zuzenbidea egokitu behar izan zen, tradizioaren aldaketa izugarria sortu zelako, oinarri minimo bat mantenduz. Errealitate honek eskatzen zuen erakunde berriak sortzea. Liber-a mantendu zen tokietan ere beharrezkoa zen zuzenbidea aldatzea. Liber-a testu moduan desagertutako tokietan zuzenbidea sortzeko premia zegoen.

## **IBERIAR PENINTSULAKO BIRKONKISTA ETA BIJEDEZTATZEA**

Errekonkista edo birkonkista: penintsularen berreskurapena 711-1492 urte bitartean. Nafarroak, Leongo erresumak, Portugalek eta Aragoiko koroa parte hartuko dute eta bakoitzak bere erresuma finkatuko du. Bakoitzak bere zuzenbidearen erredakzioa egingo du eta horrek sakabanatze-itxura oso bortitza ekarriko du. Babes-beharrak eraginda bere segurtasuna lortu nahiko dute, barne-elkartasun loturak indartuz. Denboran zehar, babes hori beste goi-mailako egoera batean dauden jaunetan bilatu beharko da. Jaunek beraiei komeni zaien kondizioak jartzeko aukera izango

dute, hartzaileentzat “usadio txar” izango direnak. Diziplina eta bake publikoaren problemak bizi-bizian zeuden, botere publikoaren ahuleziagatik leku bakoitzean zuzenbide penaleko neurriak hartu behar izan zituzten. Hurrengo pausoa prozedura arloa hornitzea zen, auziak irtenbide bat izateko. Liber-aren jarraipena ez zen posible, ematen zituen bide prozesalak ez zeukatelako zentzurik. Zuzenbide legalistak, toki askotan ohiturari eta zuzenbide judizialari utzi behar izan zion lekua. Prozeduraren berrikuntza hauek, erakunde berriak ekarri zituzten. Hala eta guztiz ere, Liber-aren desagerpena ez da erabatekoa, lege orokor bezala mantenduko da, lege berezien estalpe gisa. Antzinako legea bezala kontsideratuko da. Une horretan erregeak boterea ez zeukanez eta gizakia legea sortzeko kapaza ez zenez, zuzenbidea errekuperatu, deskubritu edo identifikatu soilik egin zitekeela pentsatzen zen. Iraganari begiratu behar zitzaion Jangoikoaren zuzenbide ona eta egokia izandakoa errekuperatu nahian. Laburbilduz, lege orokorra Liber-ean legoke eta lege bereziak toki bakoitzekoak lirarteke. Tokian tokiko lege horiek bi motatakoak: Alde batetik, jaurerrietan beren jaunak emandako zuzenbidea. Bestetik, auzo autonomo eta udaletan, zuzenbide propio bat sortuko zen (indar handia izango du, erregeentzat ere).

## **FORUAK**

Forua, leku konkretua batean indarrean dagoen ordenamendua da. Aurrean aipaturiko populazio-gune berri horiek, beren barrutiaren mugak behar zituzten, arau propioak beren epaileen bidez aplikatzeko ahalmena lortzean, forua behar zuten. Forua idazten zenean testu bihurtzen zen, guztiz identifikagarria bilakaturik. Bere oinarria, sarritan, ohitura eta jurisprudentzia judiziala izaten ziren. Testuetan honako elementuak aurkitzen ziren: oinarrizko pribilegioak, epaileen erabakiak, udalaren partehartzearen bidez lortzen den eragina eta juristen ekarpenak.

Penintsulako birkonkistan zehar, lurraldeak berreskuratuz joan ziren ahala, beraien ordenamendu propioak idatziz jarriko dituzte eta horrela foruak sortuko dira, toki bakoitzeko araudi bezala (ehunka sortu ziren):

- Pirinio-mendebaldekoa: Bi nukleo garrantzitsu, Jaka eta Sobrarbe. Jakan 1063an sortu zen, Lizarrara (1090) eta Donostiara (1180) pasako da. “Fuero de francos” eredupean jartzen da, zerga-frankiziak eskaintzen dituelako eta iparraldeko populazioa erakartzen duelako. Eredu bera agertzen du Logroñoko foruak (1095), Bizkaiko hirietarako fundazio-formula gisa erabiliko dena XIV.mendera arte. Sobrarbeko foruak, Tuteran eta Zaragozan eragina izango du.
- Gaztela-Zaharra: Foru tradizio propioa sortu, barruti zabal bat hartu zuena, jatorrizko Gaztela hain zuzen.Burgos inguruan mamitu zen.
- Gaztelako Extremadura. “Extrema Durii”. Foru testu garrantzitsuak: Sepulvedakoa eta Soriakoa.

- Leongo Extremadura. Zamora, Ledesma, Salamanca, alba de Tormes eta beste zenbait tokietako foruak azaltzen zaizkigu.
- Cuencako forua. Espainiako Erdi Aroko famatuena izango da. Forma oso heldua, ale-kopuruagatik (1000 inguru) eta edukiagatik (osotasuna, berrikuntzei egokituta, erromatar zuzenbidearen eragina onartuz)
- FUERO JUZGO. Andaluziako birkonkista egin zenean, Alfontso X.ak Fuero Juzgo-a eman zien, toki bakoitzeko foru-forma hartuz, zenbait hiriri. Horrela agertzen da area nahiko uniformeoa, Sevillatik Alacanterraino.

## **4. IUS COMMUNE: BERE EGITURATZEA ETA OINARRIZKO**

### **EZAUGARRIAK**

#### **6.ZUZENBIDE KOMUNA. ZUZENBIDE KANONIKOA**

K.o. 476. urtean Inperioa erortzean, Europa zatituta gelditu zen batez ere politikoki Enperadorerik gabe gelditu baitzen. Enperadorea zuten gauza guztien iturria Kristautasunaren ondorioz horren figura jainkotu baitzen. Ondorioz, Eliza izango da Inperioaren erortzea utzitako erakunderik indartsuena: Erromako Aita santuak legitimitatea (Leon I.)

Aita Santuaren erabakiak aldatu eta apelatu ezinak izango dira, Mendebaldeko herriak defendatuko dituen botere sendoena izango du. Botere sekularra eta erlijiosoa banaturik agertuko dira nahiz eta euren arteko menpekotasuna agerikoa izan. Aita Santuak behar zuen botere politikoaren defentsa errege boteretsuengan aurkituko du Elizaren ondasun hedapenaren bidez, dohaintzen bidez.

*Respublica Christianakren* agerpenaren bidez Europako gunerik lurraldea finkatu zen, Karlomagoren inperioa handitu zen ekialderantz eta Italiarantz lanbardoei konkistaturiko lurraldeen bidez.

*Constitutio Lotharii* sortu zen (Lotariok emandakoa) Pontifizego eta Inperioaren arteko harremanak arautzeko, Aita Santuarekiko menpekotasuna zekarrelarik.

“SACRUM IMPERIUM” (GERMANIARRA).

Aita Santuak germaniar enperadorearen (Oton I.) babesa behar zuen, germaniar Inperioak Italian, Alemanian eta Borgoian jaun baitzen “Germaniar Inperio Sakratua”. Agerikoa da beraz, Aita Santuak enperadoreekiko gero eta menpekotasun handiagoa zuela (Enperadoreak Elizako hainbat dignitate inbestitzen zituen adibidez).

Gregorio VIIak Aita Santuak Enrike IV. Enperadorearekin zuen erlazio gatazkatsua ikusita programa berezi bat atera zuen DICTATUS PAPAE

- Kleroaren ohiturak eta jarduteko erak aldatzeko
- Aita Santuaren boterearen zentralizazioa indartzeko
- Elizaren independentzia botere laikoen aurrean sendotzeko
- Kristau erresumen ugaritasuna areagotzeko

○Botere denboralaren errebindikazioa egitearren

Nahiz eta Elizaren eta Inperioaren arteko gatazkak jarraitu Wormseko Konkordatuaren bidez gauzak hein batean orekatu ziren: Pontifizegoa enperadorearen maila berean jarritz.

Federiko II. Enperadorea hil ostean sortutako hutsuneagatik Inperioaren indarrak gutxitu ziren eta beste edozein erresuma baten parean jarriko dira germaniarrak: XIV. Urtean, hala ere, Eliza krisian sartuko da eta laster Frantziako Felipe IV. “Ederra” Avignongo Erbestearen bidez Eliza bere aginpean harriko du.

## JURISTAK

Bi ikuspegi azalduko dituzte egoera honen aurrean: Kanonista eta zibilista. Zuzenbide zibila eta zuzenbide kanonikoa erabiliz indartuko dute, eskuduntzen eremuak hala eta ongien zehaztea izango delarik euren lana.

## INPERIOA ETA EUROPAKO ERRESUMAK

Inperioak bere indarra galtzeagatik erresumak bere aurka azalduko dira bere nortasuan indartzearren. Erregeak euren boterea zegokien erresumetan indartuko dute Inperioaren boteretik at zeudela baieztatuz (Frantzia edo Gaztela kasu).

### INPERIO SAKRO-GERMANIARRA. POWER POINT.

#### Aurrekariak:

- ☞ Inperio Erromatarra k.o. 476. urtean erori zen eta Europa zatikatuta gelditu zen.
- ☞ Eliza zen Inperioa desagertzean gelditu zen erakunde biziena.
- ☞ Aita Santua Mendebaldean batasunerako legitimatua zegoena.
- ☞ Leon I.goa (440-461) izan zen Kristorengandik “plenitudo potestatis” delako jaso zuenn lehenengo Aita Santua.
- ☞ Gelasio (492-496) botere sekular eta erlijiosoaren arteko diferentziak azpimarratu zituen.
- ☞ Ekialdeko Inperioak Aita Santuak bertatik aldentzeko interesa zuen; izan ere, bertan Enperadoreak zuen “plenitudo potestatis” delakoa.

#### Respublica christiana

- ☞ Dohaintzak izugarrizko ondasunak.
- ☞ Esteban II.ak Pipinori laguntza eskatu, lonbardoaren aurka aritzeko.
- ☞ Karlo Magnok 774an lonbardoak gainditu eta dohaintzak areagotu.
- ☞ Aita Santuak, Leon IIIak, Karlo Magno Enperadore izendatu zuen 800. urtean.



☞ Constitutio Lotharii 824an Inperioaren eta Pontifizegoaren arteko harremanak arautu zituen lehenengo agiria.

☞ Aita Santuarekiko mendekotasuna, gero Juan VIII.ak apurtu nahi izan zuena.

## SACRUM IMPERIUM' GERMANIARRA

☞ Aita Santua Erromako alderdi eta indar aristokratikoen menpena erori.

☞ Oton I.go Enperadoreari babeska eskatu Aita Santuak eta lehenengoari Koroa eman.

☞ Germaniar Inperio sakratua sortu zen eta Enperadorearen menpe zegoen Aita Santua.

☞ Gregoria VII Aita Santuan Enrike IVna Enperadorearekin erlazio gatazkatsua.

☞ "Dictatus Papae" egin Aita Santuak.

☞ Worms-eko Konkordatuaren bidez gauzak orekatu, nahiz eta Elizaren eta Inperioaren arteko borroka jarraitu.

☞ Horrela, Pontifizegoa Enperadorearen mailan jarri.

☞ Gatazkek jarraitu zuten eta Inozentio III.ak "plenitudo potestatis" teoria berpiztu zuen.

☞ Federiko II.na Aita Santuaren kontra gogor aritu zen.

☞ Bera hil ondoren Inperioak indarra galdu.

☞ Frantziako Erresumak indar handia hartu eta Aita Santuak bere menpe (Felipe IV.na Ederra).

☞ Elizaren sisma (1378-1417): eliza bi zatitan banatuta.

☞ Konstantzako Kontzilioan (1418) konpondu Martin V.na Aita Santua aukeratzearekin.

## ZUZENBIDE KANONIKOA

### MENDEBALDEKO KULTURA JURIDIKOA ZUZENBIDE KANONIKOAN ERABAT MURGILDUA.

Goi Erdi Aroan Eliza zen heziketaren instituzionalizazioa, gizartea ezjakina, atzerakoia eta sinesduna zelarik Elizak beren nahietara garaiko kulturaren heziketa gauzatuko du. Izan ere, normala izango da erregearen agiri ofizialen egokitasunaz arduratuko den pertsona Elizgizon ilustratuen artean hautatzea, Kantzillerrak. Unibertsitate ikasketak gehienbat Aita Santuak bultzaturiko unibertsitateetan ematen ziren, zenbait unibertsitatek zuzenbide erromatarrean oinarritutako Zuzenbide Kanonikoaren tituluak ematen zituztelarik.

Esan dezakegu, gobernu laikoa bera elizgizonen eskuetan zegoela horietako askok funtzio judizialean eta behe-administrazioan jarduten baitzuten. Gainera, hainbat lurraldek apezpikuek gobernatzen zituzten Aita Santuaren agintepean.

Elizaren gobernu zentralizazio sendo honek Elizaren zuzenbidea eredu hartzea dakar berarekin, eliza-auzitegiek hainbat gaietan eskuduntza osoa zuten eta horregatik Zuzenbide Kanonikoak eragin nabarmena lortuko du. Eliz auzitegia eskumen nabarmenak.

Guzti hau berekin dakar Zuzenbide Erromatarraren berraurkikuntza, Eliza auzitegiek eta gero, auzitegi sekularrek bere gain hartuko baitute. Hala ere, Zuzenbide Erromatar hori Zuzenbide Kanonikoaren agintepean geratuko da (Ezin kontraesan).

### Zuzenbide Kanonikoaren Iturriak. XII. Mendearen aurreko bildumak.

Glosatzaileak euren zuzenbide erromatarraren lehenengo azterketetan gauzatutako lanari esker Zuzenbide Zibila eta erromatarra gauza bera izango dira.

Elizaren zuzenbideak Kontzilio kanonetan eta Aita Santuaren erabakietan zuen bere oinarria, horregatik bi arlo hauek bildu eta ordenatzea beharrezkoa zen, doktrina batzearren. Helburu hori, testuen finkapena, XII. Mendean lortuko da lehenengo aldiz *Decretum* idatzi zenean.

#### *1Decretum "Concordantia discordantium canonum"*

Grazianok, Bolonia inguruko monje batek Eliz-zuzenbidearen iturriak ordenatzeko nahi azaldu zuen 1140. urtean "*Concordantia discordantium canonum*" delakoaren bidez.

Kutsu teologikoa erabiliz erromatar testu gutxi erabili zituen eta horregatik hasieratik Grazianoren obrak influentzia handia lortu zuen nahiz eta kanonistentzat erromatar zuzenbidea ezagutzea beharrezkoa izan.

Grazianoren helburua: oinarrizko testuak bildu, metodikoki taldetu, autoritateak finkatu, doktrinaren egileak adierazi eta horiek elkartzea.

Iturriak: 195 kontzilioen kanonak, 78 Aita Santuak emandako dekretalak eta 36 eliz Gurasoen idatziak.

Emaitza: 101 *distinctiones*, 36 *causae* eta 5 *distinctiones* (*Distinctio* bakoitza Grazianoren *dictum* batekin, baieztapen juridiko batekin hasten da, kontziliario kanonan emandako ondorioak).

Hasieratik lege indar eta baliotasuna eman zitzaion, nahiz eta onarpen ofizialik ez izan. Balio hori 1918. urtean Kode Kanonikoa promulgatu arte iraundu zuen.

#### 1Dekretalak

Grazianoren Dekretua egin zenean Aita Santuaren legegintza (erabakien bidez) nabarmena zen, horrek araudi zabal eta korapilotsua sortzea eragin zuen. Horregatik, beharrezkoa izango du Elizak bere zuzenbidearen eraginkortasuna bermatzeko horiek behar bezala azaltzea.

Azalpen hori gauzatzeko bost konpilazio egin ziren XIII. Mendean: Gregorio IX.ak, bere aholkulari Raimundo Penyafortaren bitartez, bilduma ofizial bat egingo du 1234. urtean.

Gregorio IX.ak bere konfiantza osoa eman zion Raimundo P.ri bildumak garatzeko: Raimundok ez zuen bildumagile lan hutsa burutu erabilitako iturriak askatasun osoz landu baitzituen (arau osoak sartu zituen) testuen ulergarritasuna bermatzeko, legegilearen mailan kokatuz (sortze lana).

Bost konpilazioak behar bezala bost liburuetan bereizi ziren: 1) zuzenbidearen iturriak, 2) prozesua, 3) kodeen egitura, 4) ezkontza eta 5) zuzenbide penala eta bere prozedura = 2.139 kapit.

Laburpen lan bat burutzeko nahian, horietatik 1756 kapitulu hartu eta bildumak guztira 1971 kapituluz hornituko da (185 titulutan banatuz).

Elizak bilduma hauen bitartez bere zuzenbide iturrien finkapena lortu zuen, Decretum eta Dekretalen artean Elizaren zuzenbidea osatzen zuten mende askotan iraunduko duena.

XIII-XIV bitartean beste 3 dekretalen bildumak egingo dira (Liber Sextos, Klementinak eta Extrabaganteak) eta Gregorio IX.ren Dekretalekin “Corpus Iuris Canonici” delakoa osatuko dute 1582an.

Elizaren oinarrizko horrek bere aztertzaileak (glosatzaileak) izango diru, horrela “dekretistak” (Bresciako Bartolomek) ta “dekretalistak” (B.B.Parmakoak) sortu ziren bakoitzaren Glosa Ordinariaoa garatuz.

Iturri juridikoak glosatzeko ere zuzenbide kanonikoak autore batzuk arituko dira, tractatus izeneko lanak burutuz. Dena den, zuzenbide prozesalean egindako lan bat aipatzekoa izango da Durantek egindako Speculum Judiciale delakoa.

## **7.ZUZENBIDE KOMUNA. ZUZENBIDE ERROMATARRA**

### **ZUZENBIDE KANONIKOA ETA BERE OINARRIZKO TESTUAK**

Goi erdi aroko kultura juridikoa erromatar zuzenbidearen sinplifikazioan oinarritzen zen. Ekialdean zuzenbide kultura mantentzen bazen ere Mendebaldean erromatar zuzenbidearekiko lotura motelagoa izan zen. Ez zen zuzenbidearen inguruko azterketa autonomorik egin, zuzenbidearen azterketa beste ikasketen parte izaten baitzen.

Goi Erdi Aroan, zuzenbidea erretorikaren barnean zegoen, jakinduria bi zatitan banatzen zelarik: 1) Triviumak (Hizkuntzarekin zer ikusia: pentsamenduaren adierazpena, erretorika eta dialektika) eta 2) Quadrivium (Errealitate materialarekin zer ikusia: geometria, aritmetik, astronomia eta musika). Bi eskola mota bereizi ziren ere, hirietan Katedraletakoa eta landatar eremuetan monastegietako eskolak: zuzenbidea erretorikaren arloan irakasten zen.

### **BOLONIAKO ESKOLA. IRNERIO.**

Bolonian erretorika irakasten zen. Zuzenbidea helburu bakartzat hartzen zen, logikari eta erretorikari uko egin gabe. Honi dagokio Boloniako berpizkunde juridikoaren meritua, Boloniako Unibertsitatea zuzenbidea irakasteko zentro inportantea izatera pasa baitzen. Eskola honek Justinianoren bildumaren berpizkundera dakar berarekin.

Zibilizazio hiritar berriak eskatzen zuten zuzenbide berri baten beharra: Boloniako Unibertsitateak sortutako zuzenbidea errealitatean egokia dela frogatzea ezinbestekoa egiten da, Italian gehienbat mantentzen zelarik Erromatar kultur juridikoa (Justinianoren ezagupenak). Horregatik, Zuzenbide Erromatarrak planteatzen zuen batasuna eta enperadoreen botere betearazlearen alde jarriko dira Boloniako juristak (enperadorearen eta Aita Santuaren arteko borroka gainditzeko asmoz, Herri bat Zuzenbide bat).

Zuzenbidearen eboluzioa beraz, bide berri batetik abiatuko da, Mendebaldeko zuzenbidearen historian egitate inportanteena sortuz: zuzenbide erromatarraren liburuen berreskurapena, zuzenbide ikasketak egiteko moduaren aldaketa eta zuzenbide berri baten beharra.

### **CORPUS IURIS CIVILIS**

Aztertuko diren testuak Justinianoren Corpus Iuris Civilis izenarekin ezagututako bildumarenak izango dira. Hala ere, ez dira antolatuko Justinianok berak egindako moduaren arabera, banatze bat egon baitzen. Hortaz, bildumako elementuetako bakoitzak bere nortasun propioa hartuko du.

Bereizketa:

Digestum-ak hiru zati izango ditu (50 liburu guztira)

1. Lehen zatiak, *Vetus* izena hartzen du (zaharra). Lehen 23 liburuak eta 24. liburutik bi tituluak eta hirugarren tituluaren lehen legea.
2. Bigarren zatiak, *Infortiatum* izena hartzen du (*Vetus* eta *Novum*aren artekoa: "Kartzelan") 24. liburuko hirugarren tituluaren bigarren legearekin hasten da 38. libururaino.
3. Hirugarren zatiak, *Novum* izena hartzen du 39 liburutik-50raino.

Codex: Erdi aroko Justinianoren lehen 9 liburuak hartzen ditu, beste hirurak kanpo geratzen direlarik eranskin gisa tres libri izenarekin.

Volumena: azken osagarria.

-Corpus Iuris Civilisaren edo Codexaren azken hiru liburuak, tes libri deiturikoak.

-Gaioren obran oinarritutako Instituzioak.

-Novelak: *Autentica* Konstituzio inperial laburtu eta latinera itzultakotik hartua. Guztira 97 konstituzio inperial hautatu jatorrizko 125 konstituzioetatik.

-Volumenak denetik zuen edukitzak: XII. Mendean *Digestum*aren hiru parte horiek zuzenbide feudalaren eragin nabarmena izango dute, *Libri Feudorum*ak.

### CORPUS IURIS CIVILIS POWER POINT

Latin-eraz idatzia, *Cuerpo del Derecho romano* izenarekin ezagutu.

Justiniano I.(527-565) enperadore bizantziarraren eta Triboniano juristaren eskutik heldu zen.

Zuzenbide erromatarraren lege-bilduma garrantzitsuena.

Bertan, Erromatar Inperioko konstituzioak eta jurisprudentziak daude.

Lege bilduma honek lau zati ditu: *Codex repetitae praelectionis*, *Digesta sive pandectae*, *Institutas* eta *Novellae constitutiones*.

*Corpus Iuris Civilis* sorreraren helburua Erromatar Inperioko batasuna eta handitasuna berreskuratzea zen.

Azpimarratu behar da lege honek duen garrantzia filosofikoa, legala eta historikoa.

*Corpus Iuris Civilis* ezagutza iturria da: zuzenbide ikasle garen heinean zuzenbidea ulertzen ikasteko baliogarria dena, gaur bere aplikazio juridikoa ematen ez bada ere.

Bere garaian efektu juridikoak sortzen zituzten legeen konpilazioa izan zen *Corpus Iuris Civilis*-a.

Erabilera desberdinak izan zituen bere garaian: ikasteko oinarri bezala, aplikazio moduan...

*Codex repetitae praelectionis/Kodigoa*

☞ 529.urtean lehen *Codex*-aren publikazioa eman zen; bigarren publikazioa, Justinianoren Kodea, aldiz, 534.urtean. Konpilazioa honetan, Konstituzio inperial guztiak bildu ziren (Hermogeniano, Gregoriano y Teodosiano enperadoreenak).

☞ Lan hau ez da guregana heldu.

*Digesta sive pandectae/Digestoa*

☞ 533. urtean argitaratu.

☞ Berrogeita hamar liburuetan banatuta.

☞ Erromatar juriskontsuluen lanen sintesia.

☞ Bere publikazio momentutik aurrera, aurreko edizioak indargabetu zituen.

*Institutas/Instituzioak*

☞ 533. urtearen bukaeran publikatu.

☞ *Gayo*-ren Instituzioen adibideari jarraitu.

☞ Lau liburuetan banatu.

☞ Zuzenbidea ikasteko oinarrizko liburua izan arren, indar juridikoa zeukan.

*Novellae constitutiones/Eleberriak*

☞ Azken lan hau 534.urtea baino lehenagoko Konstituzio inperialen konpilazioa baita.

☞ Grekoz idatzita zegoen, eta ez daude ofizialki konpilatuta.

## **GLOSATZAILEAK**

Testuak berreskuratuta liburu horiek irakurri, ulertu eta indarrean sartzeko prestatzea izango da zeregin nagusia. Glosatzaileak, kritikotasuna albo batera utziko dute euren lanean ikuspegi historiko, filosofiko edo literarioa erabiliz.

Glosatzaileek euren lana *glosa* bidez, edukia iruzkinduz, egingo dute: glosa gramatikalak lerroartekoak izango dira eta glosa marjinalak (doktrinalak) aldamenean egingo dira.

Logikaren teknika oinarrizkoak erabili zituzten legeak aztertzeko lanan elkarrekiko erlazioak azalduz, kontraesanak aurkituz eta konponduz, kausak eta arazoak planteatuz eta ondorio orokorrak ateraz. Legeen arteko sistemaren ikuspegi orokorrak gauzatu zituzten ere, *summae*.

Lehendabiziko glosak anonimoak izan ziren arren autoreen inzialak jartzea erabat zabaldu zen. Hala ere, errepikapenaren ondorioz glosak estandarizatu ziren eta nolabait eskola sortu eta jarraitzaile ugariak izatea lortu zutela baieztatu dezakegu.

Zuzenbide Erromatarra guztiz aplikagarria izango da glosatzaileen lanari esker: beraz, mendebaldeko Zuzenbide Komuntzat har genezake lortutako hedapenari esker. Hala ere Ius Commune hori bere osotasunean lortzeko Elizaren zuzenbidea kontutan hartu beharko da, hori hurrengo fase batean lortuko da *utrumque iuseko* fasean (gero azalduko).

Glosarem fasea amaitutzat hartzeko, behin betiko glosa egitea beharrezkoa egiten zaigu: ACCURSIOren MAGNA GLOSA sortuz.

## **IRUZKINTZAILEAK “MOST ITALICUS”**

Zuzenbidea lantzeko unibertsitateko giroak, zuzenbidea hedatzen zen heinean Europat osoan hedatu zen. Frantzia, Orleans, zuzenbide erromatarra aztertzeko berrikuntzak lantzeko gai izan zen, dialektika eskolastikoaren erabileran oinarritzen zelarik: Jacques Revigny eta Bartolo.

Zuzenbide komunari bultzada berri bat egingo dioten autoreak Frantziarrak izan arren, Italian kokatu zirelakoan “most italicus”/”modu italiarra” ren metodoa hartuko dute. XIV.mendean garatu.

Iruzkintzaileen helburua errealitate praktikoak eskatzen zuenari erantzun egokia ematea izango da, horren aurrean konpondu behar zuten arazorik pisutsuena Zuzenbide Komun orokorraren eta zuzenbide partikularren (berariazkoak) arteko koordinazioa zen: inperioaren krisiak berekin ekarri zuen erresuma nazionalen eta udal autonomoen gorakadak, ordenamendu juridiko berariazkoak areagotuz.

Arazo horri aurre egiteko, zuzenbide bereziak lehentasun osoa izango dute, baina zuzenbide komun orokorraren beharra izango dute marko orokor bat eskaintzen baitu. Hortaz, zuzenbide komun orokorrak nahiz eta ordezeko zuzenbidea bihurtu ez du bere indarra galduko, alderantziz, bere zeregina indartuko da.

## **UTRUMQUE IUS**

Zuzenbide kanonikoak gizarte zibilean zuen eragina geroz eta handiagoa zelarik, ezinbesteko zeregin juridikoa izango da Elizaren zuzenbidea eta gizarte zibilaren zuzenbidea elkarganatzea.

Iruzkina mota hauek iturri mota guztiekin batera erabiliz gauzatuko dira; honek eztabaida gogorrek ekarriko ditu autoritatearen argumentua oso erabilia izan baitzen.

Juristen zuzenbidearen aurrean gaudela baieztatu dezakegu: Zuzenbide komuna mendebaldeko europako zuzenbide orokor gisa finkatu zen gehienbat unibertsitateak tresna gisa erabiltzeagatik (irakasleak=juristak).

Jurista garrantzitsuenen Bartolo S. Dugu, idazlan kopuru izugarria eta jarraitzaile anitz izan batzuen, berriazko tankerako eskola sortu zuen.

### **ESKOLA HUMANISTA. HUMANISMO JURIDIKOA.**

Errenazimenduko kultura mota berriak inposatzen zirela korronte humanistak bere lekua hartu zuen, zuzenbidearen ikusmoldea erabat aldatzeko bideak azaldu zirelarik.

Molde metodologikoak aldatu zituzten, zorrotasuna: testuen erabilera kritikoa, molde intelektual askeagoak, digestuari baino Instituzioei garrantzi handiagoa eta historiaren bilakaeraren kontzeptuari pisu nabarmena eman.

Frantzian sortu, baina laster hedatu zen. Berebiziko garrantzia Frantzian eta Holandan, baita ere Italian eta Espainian.

Gizakiaren gaitasun intelektual handiagoa, arrazionaltasuna: iusnaturalismo berri bat sortuko da, iturri arrazionaletatik zuzenbidearen printzipio orokorrak aterako dituen, “dedukzioa”.

Hala ere ez da Ius Communeren indarra desagertuko, izan ere, “mos italicus”aren formak oraindik ere guztiz indarrean zeuden.



## **8.ZUZENBIDE KOMUNA. EUROPA-MENDEBALDEKO ZUZENBIDEEN ERROMATARKUNTZA**

### **ERDI AROKO ZUZENBIDEAREN BIR-ERROMANIZAZIOA**

Zuzenbide komunaren eragina erreinuetan harrera ezberdinak izango ditu.

Erresumetan zuzenbidea sortzeko ahalmena zuten organoek zuzenbide ofiziala sortuko dute, ohiturazko zuzenbidea eta zuzenbide komuna aldamenean geratuko direlarik.

Erregeek bere ahalaren bidez euren zuzenbidea sortzeko indarrez emandako legeek ez zuten esparru juridiko osoa betetzen, horregatik Zuzenbide Komunaren beharra.

Antzinako erregimenean, nahiz eta botereak nahi hainbeste lege sortzeko ahalmena izan hutsuneak betetzeko Zuzenbide Komuna beharrezkoa egiten da. Zuzenbide komuna zuzenbide partikular guztien ordezkari hartuko da, esplizituki edo inplizitoki onartua, hutsuneak betetzeko.

Aro berrian, ordenamendu juridikoaren inferfekzioetat jabetzeagatik ez zioten eragozpenik jartzen zuzenbide jurisprudentzialak funtzio osatzailea betetzeari, z.k. tresna gisa.

Erdi aroan produkzio jurisprudentzial horrek maila tekniko altua lortuko du, gaiei mugarik ez jartzeagatik: gatazka juridikoak konpontzeko baliabide gehien eskaintzen zituena ZK zen. Produkzio hori bere mugak kulturaren eta erlijioaren aurkituko ditu.

Zuzenbide komuna egitate kulturala bihurtu zen: gizarte oso batek izandako eboluzioa interpretatzeko oinarri finkoak ematen zituen sortutako jurisprudentziak.

### **ZUZENBIDE JURISPRUDENTZIAL HISTORIKOAK**

#### **ZUZENBIDE ERROMATARRA ETA ERDI AROKOA**

Zuzenbide erromatarrean printzeen konstituzioak eta enperadoreen legeriak betetzeko zuzenbide jurisprudentziala beharrezkoa zuten: testua autoritatea ez desbideratzeko interpretazio hori debekatzea erabaki zuten.

Garai klasikoan zuzenbide erromatarra akzio-zuzenbidea zen: juristek sortutako doktrinak zuzenbideari norabidea ematen zion, ez zeuden Estatuari lotuta, zuzenbide pribatua ez zen organo legegileek sortutako legeetara mugatzen. Zuzenbidearen helburua jabetza eta ekonomiarekin lotuta zeuden errealitate juridikoak bideratzea zen, soluzioak kasu berriak epaitzeko oinarri gisa hartuko zirelakoan. Hartzaileak euren status juridikoari baldintzatuta zeuden.

Nahiz eta Monarkien XII. Mendetik aurrerako faseetan Zuzenbide komunak ez zuen legalitatearik lortu, lortutako ospe eta indarrarengatik legitimitatea izatea lortu zuen.

Juristek, horretarako lan handia egin zuten: CICivilis eta CICanonicciren bitartez zuzenbidearen oinarri segurua eskaintzen zuten.

LEGES: ordenamendu idatziak betetzen duen tokia

RATIONES: arrazoiak, arrazonamenduak, logikak.

AUTORITATEAK: iritziak. Iritzi komuna zabalduena. Jurisprudentiaren printzipio orokorrak.

### **ZUZENBIDE KOMUNAREN (ERROMATARRA?) HARPENA IBERIAR PENINTSULAN**

Heldutasunezko zientzia-juridikotzat har dezakegu, lege-liburu bildumetan oinarritutako Zuzenbide Zibiltzat, hain zuzen ere. Erreinu ezberdinetan harrera ezberdin bat suposatu zuen Zuzenbide honen sarketak, baina ez da normalean Zuzenbide ofizialtzat joko baizik eta boteredunek sortutako Zuzenbidearen hutsuneak betetzeko tresna: errezepzioa ezberdina izango da faktore faboragarri (molde berrien beharra adibidez) eta oposaketaren (erregearen oposaketa esate baterako) arabera.

Esparru juridiko osoa betetzeak segurtasun juridiko handiagoa ematen dio gizarteari (badakite zer formula aplikatuko den). Beraz, aurreko erregimenak Erregeei emandako Zuzenbideare gaineko ia monopolioa nolabait ezabatzen da, ohitura jurisprudenzia doktrinalagatik ordezkaturiko da Erdi Aroan. Jurisprudenzia doktrinal horrek ez du mugak aurkituko edukiari dagokionez garai honetan egitate kulturala bihurtuz.

Testu-liburuak (Petrus Hispanus-enak adibidez) eta nola ez, Unibertsitateak (Bologna aipatzekoa) prozesu horretan garrantzi handia izango dute bai Europa zein Peninsulari begira. Kanpo eta barne harremanak sustatuko direnez, Zuzenbideak hedapen zabal eta sakonago bat izango du. Elementu faboragarriak izan arren ezinbestekoa da ere azaltzea populazioaren gehiengoak elitearen Zuzenbidetzat jo zuela: burgesiarena (kontratuak).

## **5. ZUZENBIDE KOMUNA ETA ERRESUMETAKO ZUZENBIDEAK.**

### **GAZTELA. EUSKAL LURRALDEAK**

#### **9. ERRESUMEN ZUZENBIDE OROKORRA. ZUZENBIDE GAZTELARRA.**

Alfontso X.ak oso argi ikusten zuen zuzenbide sortzea erregearen funtzioa zela eta erregearen borondateak lege indarra zeukala. Bere asmoa izango da Gaztelako erresuma osorako zuzenbide bera hedatzea, bere lurraldeen uniformazio eta berdintasun juridikoa lortu nahian. Asmo uniformatzaile horren aurka erresumaren egitura juridikoak ezberdintasun handiak agertzen baitzuten. Beraz, erregearen zuzenbidea aplikatzeko, bazeuden zenbait oztopo. Udalerriek beren foruak defendatu nahi zituzten, baina ez zuten erregearen agintea zalantzan jartzen; aurrera atera nahi zuten bere ordenamendua eta horregatik idatziz jartzen zituzten.

Alfontso X.ak ekingo dio zuzenbidea sortzeari, bere azken xedea, bere erresumaren zuzenbide batua lortzea; udal autonomia gainditzea edo kontrolatzea; nobleziaren boterea berdintzea eta Jurisdikzioaren norabideak bereganatzea zelarik. Alfontsoak bere legegintzako asmoetan hiru urrats berezi eman zituen: “Fuero Real”-a, “Especulo”-a eta Zazpi Partidak.

#### **Foru erreala**

Alfontso X.aren legegintzako lehen emaitza. Promulgazioa 1255ean koka daiteke. Gaztelaraz idatzitako lau liburutan banatzen da:

- Eliza eta fede katolikoaren oinarriak; eta Erregeari dagokion leialtasuna eta erreinuaren egitura, antolamendu judizialaren eskema oinarritzkoekin.
- Zuzenbide komunaren eragina, prozedura teknikoa, ahalik eta perfektuena, osoa eta egokitasunez jantzia, lortu nahi baita. Gregorio IX.aren Dekretalak erabili ziren. Justiziaren administrazioa erregearen kontrolpean azaltzen da.
- Ezkontza eta Oinordetza. Testamentua, zenbait kontratuzko figura eta obligazio eta kontratu mota aurrekoiak.
- Zuzenbide penala.

Gaztela guztian zuzenbide lokala berdindu nahian emango du Alfontso X.ak Errege-Foru hau, baina hasiera batean ez zuen izan aplikatzerik irizpide lurraldetarrarekin. Testu beraren zabalpen orokor bat lortu nahi zuen. Foru errealak hiru tradizio hartzen zituen:

1Bisigotikoa, zuzenean Liber Iudiciorum-etik.

2Gaztelarra, testuak berak onartzen zuelako Gaztelako foru onenen edukia eta probetxuaa.

3Zuzenbide tekniko berria, europarra, hau da, zuzenbide komuna.

Foru errealean erregea jartzen da sistemaren gunean. Bera izango da jurisdikzio edo eskumen guztien sorburu. Lege liburua zen, liburu batean idatzitako forua da. Zuzenbide legal motakoaren aurrean gaude, non trinkotasuna eta osotasuna lortu nahi den. Justiziaren administrazioa arautzen da arreta bereziarekin, monopolio osoa lortuz.

### **“Espéculo”-a**

Foru errealean agertzen ziren joerak areagotu egin ziren hemen. Batasun juridikoa lortu nahi zen. Liburu honetan legearen arrazionaltasuna, eta zuzenbidea sortzeko ahalmena erregearengan daudela, sistemaren oinarria izanik, garbi azalduko da. Erregeak bereganatuko du legearen interpretazioa eta hutsuneak betetzeko ahalmena. Zuzenbide erromatar-kanonikoaren harpena zabala izango da. Bukatu gabe geratu zen bist liburu idatzi ondoren, ondorioz foru erreala indartu zen.

### **Zazpi partidak**

Erregea zuzenbide komunaren errezeptzioaren alde zegoen, baina zuzenbide komunaren sarrera kontrolatu eta neurtu nahi zuen ere. Horretarako, erregeak zuzenbide komunaren masa handitik nahi zuena hautatu zuen gaztelako zuzenbidean hautatzeko. Hau da, Zazpi partidak zuzenbide komunaren harpenerako liburua da. Beraz, zuzenbide komunaren errezeptzioa gaztelan neurtuta izan zen, hautapenez eraikitakoa. Partidak idaztearekin gauzatu zen haroena teorikoa besterik ez zen izan. Partidetan Ius Commune-ren bi kultura iturrietatik datorrela aitortzen da: Elizak eta jakinduri erromatarrak emandakoetatik (Corpus Iuris Civilis delakoari etekin handia atera), bestalde, Bibliak ere (liburu sakratua den heinean) oinarrizko egiak emango ditu.

Hala eta guztiz ere, ez da bertako tradizioa baztertzen, Gaztela eta Leongo foru “onenak” kontuan hartzen dira (Foru errealean baino neurri txikiagoan).

Honekin, Alfontso X.ak Inperio osorako balio zezakeen liburu bat idatzi nahi izango du, baina ez zuen lortu ez ziotelako enperadore hautatu.

Zazpi zatitan edo “partidetan” banatu zen:

1Fede katolikoa eta elizaren antolamendua.

2Botere politikoa

3Zuzenbide prozesala

4Ezkontza

5Kontratuak

6Oinordetza

7Zuzenbide penala

Zuzenbide bere osotasunean hartu nahi zen, lege orokorrak eskaini zezakeen markoa lortuz, beraren barnean zuzenbide partikularrek beren tokia izan zezaten. Justiziaren administrazioari atentzio berezia ematen zitzaion.

Gaztelako erresumetako toki askotatik erregeari kontrako erreakzioa (erregearen monopolio normatiboa ez zuten onartzen) eta horregatik ez zen posible izan Partiden aplikazio zehatza. Erreakzio honek 1272an hasi zen eta 1274an Zamorako Gorteetan egindako hitzarmenarekin bukatu zen. Ondoren, bere forua zeukaten udalerrien autonomia onartu behar izan zuen eta beraien zuzenbidea errespetatu behar zuen. Ondorioz, erregeak bi bide prozesal ezberdin bermatu behar izan zituen. Orden publikoa arriskuan jarri zezaketek ekintzak, erregearen justiziaren bidez konponduko ziren. Erregeak eta bere “gorteak” kasu hauetan babes osoa eskaintzen zuten (Gorteko kasuak ziren). Gainontzeko auzietan aplikatuko zen prozedura, ohikoa izango zen (bereziki helegiak bideratzeko). Beraz, “gorteko kasuak” horietatik kanpo, kasu bakoitzari zegokion tokiko zuzenbideak agintzen zuten prozedura eta zuzenbidea aplikatuko zitzaion, bertako foruak agintzen zuten moduan (“casos foreros” deituko zaie). Beraz, Alfontso X.aren asmoak ez ziren bete.

#### ZAZPI PARTIDEN POWER POINTA:

**SARRERA.** “Zazpi partidak”, Alfontso X. erregealdian zehar (1252-1284) erredaktatutako gorputz normatibo bat dira. 7 partiden kodeak, Alfontso X.-aren eginkizun legegilearen erdialdea osatzen dute. Beren helburu nagusia batasun legegilea sortzea izan zen erreinuan zehar.

Kronologiari dagokionez, 1254an hasi ziren idazten eta 1261. urtean bukatu ziren. Gaztelan argitaratu ziren. Hasiera batean, “Libro de las Leyes” edo “Fuero de las Leyes” izan ziren deituak. XIV. Mendetik aurrera, “Zazpi partida” izena hartu zuten.

**ITURRIAK:** Iturri erromatarrak: Zazpi partiden iturri nagusienetako bat Justinianoren Corpus Iuris Civilis izan zen; baita ere garai hartako beste obra batzuk ere. Iturri kanonikoak: Gregorio IX.-aren konpilazioetan oinarritzen dira eta batik bat dekretuek osatzen dute. Hala ere, San Raimundo de Peñafort-eren obrako zenbait obra ere batzen dira partidetan. Iturri hauekin batera, izaera juridikoa ez duten zenbait iturri daude, izaera, erlijioso, filosofiko, politiko eta morala dutelarik. Hemen, Aristoteles eta Seneca bezalako filosofoen obrak batzen dira.

**1.go PARTIDA:** Zazpi partiden barruan lehenengoak 24 titulu ditu, eta hauek gai zehatz batzuk jorratzen dituzte, hala nola zuzenbidearen produkzioa eta erlijio kristaua. Zuzenbidea legeak eta ohiturak eratzen dute, hori bai, erregeak esaten dituen legeak. Legearen ignorantzia emakumeengan eta militarrengan soilik onartzen zen. Erlijioari dagokionez, fedearen, sakramentuen eta erlijioaren inguruko artikulak daude.

**2. PARTIDA:** 31 tituluz osatuta dago eta enperadoreez, erregeez eta bestelako jauntxoek aritzen da. Gai politikoak baino ez ditu jorratzen. Bigarren partida honek gorteko ofizial guztien eginkizunak aztertzen ditu, hierarkia gehien dutenetik, gutxien dutenerarte. Gazteluen jabetza erregulatzen du eta zaldun, unibertsitate eta guda tituluak ematen ditu.

**33. PARTIDA:** 3. Partida 32 titulu eta 543 legez osatuta dago. Bertan justizia eta justiziaren administrazioari buruz hitz egiten da. Prozedura zibilaria egiten dio erreferentzia eta bere erdialdea zuzenbide prozesala da. Legeen artea, demandatzailea eta demandatuaren arteko harremanekin lotutakoak; epaileen ingurukoak, eta halakoak aipatzen dira.

**44. PARTIDA:** Partida honek 27 titulu ditu, eta bertan gaur eguneko familia zuzenbidea arautzen dela esan dezakegu. Ekimen desberdinak arautzen dira bertan, hala nola, ezkontzak, dibortzio kausak, filiazioak, adintxikien tutela... Horrez gain, jarduteko gaitasunaren inguruan hitz egiten da ere.

**55. PARTIDA:** 15 tituluz osatuta dago eta mailegu, trukeak, erosketak eta bestelako kontratuei buruz mintzo da. Ekintza juridiko horietatik sor daitezkeen gatazkak, merkataria eta merkatuak, zorrak eta nabigazio konpainien alorra erregulatzen ditu. Guztiak borobilduz, zuzenbide zibila du aztergai.

**6. PARTIDA:** 6. Partidak 19 titulu eta 272 lege ditu. Oinordekotza Zuzenbidez eta Zuzenbide Zibilaz arduratzen den partida da. Bere barnean testamentuekin lotutako legeak agertzen dira, bai eta adintxikien tutoretzarekin lotutakoak ere. Era berea, ume zurtzaren estatutu juridikoarekin lotutako arauak barneratzen ditu.

**7. PARTIDA:** 34 tituluz osatuta dago eta zigor zuzenbidez berba egiten du. Delituen arteko mintzatuenak, sexuari lotuta daudenak (sodomia, adulterioa, intzestua...) eta sorginkeriari, sakrilegioari eta blasfemiari lotuta daudenak dira. Horretaz aparte, kartzeletaz, presoiei egikaritutako torturetaz eta juduen nahiz musulmanen estatutuetaz mintzo da.

### **Leyes de estilo**

Erregearen Gortean erabakitzen ziren auziak, jurisprudentzia berezia sortzen zuten denboran zehar. 1300. urte inguruan, idatziz jaso ziren eta 252 ataleko multzoa osatu zuten. Horiek ziren epaitegiaren "estiloak", eta horregatik eman zioten izenburu hori. Bilduma honek Gaztelako zuzenbidearen interpretaziorako arau bidezkoa eta beharrezko argibideak ematen zituen. Beraz, zuzenbide sustantiboaren eta prozesalaren arteko elkartzeko probetxugarria lortu zen.

### **Alfontso X.aren legegintza-emaitzak**

Erregearen proiektuak atzeratuta gelditu ziren, munizipioen eta jaurren zuzenbidearen probetxutan. Erregeak bere zuzenbidea Auzitegi Gorenerako utzi behar izan zuen.

### **Alkalako ordenamendua**

Alfontso XI.ak egingo du maila ofizialean zuzenbide erromatar-kanonikoaren onarpena, alkalako ordenamenduaren bidez. Gaztelako ordenamendu juridikoaren lehentasun-ordena betiko finkatu zen. Alkalako ordenamendua aditu batzorde batek prestatutako lege-multzoa da, Gaztela osorako egoera juridikoa finkatu nahian emana. Helburu nagusia: zenbait alor zehatzak arautu, argitu edo zehaztu beharra zeukatenak hain zuzen ere. Beren berezitasuna zeukaten figura juridikoak azpimarratu nahi ziren. 60 lege inguru dira 30 titulutan bantuak. Honela banatzen dira:

- 15. tituluraino, zuzenbide prozesala
- 16., 17., 18.ak, obligazioak

- 19.a, oinordetza
- 20-23ak, zuzenbide penala
- 28a “leyes para que se puedan librar los pleitos”, bere lehen legean lehentasun ordena finkatzen duena.
- 29.etik 32.eraingo, Gaztelako nobleziaren zuzenbide propioa.

Zuzenbide prozesalak leku handia hartzen du, justizia-administrazioaren adar zehatz batzuk argitzeko nahia dago. Ordenamenduaren helburu nagusia: jurisdikzioaren egikaritzea arautzea. Horregatik zuzenbide prozesalari atentzio handia ematen zaio.

Gaztelako sistema juridikoak behar bezalako koherentzia izateko, iturrien arteko lehentasun-ordena juridikoa 28.tituluko lehen legean finkatu zen. Lehen mailan, Alkalako ordenamendua jartzen da, une hartan, erregearen zuzenbidea zuzenean eta osorik hartzen zuena. Errege zuzenbidearen ordezkia, foru erreala eta leku bakoitzeko forua izango dira (bakoitza dagokion tokian). Beraz, zuzenbide lokala onartzen da, baina muga eta betebeharrekin. Bi iturri multzo horien atzetik Partidak jartzen dira, beraz, une honetan ezartzen dira gaztelar sistema juridikoan. Ondorioz, frogatzen zen zuzenbide komuna guztiz integratuta zegoela Gaztelako zuzenbidean. Iturri hauetara jo eta gero, hutsunerik edo zalantzarik izanez gero, erregearengana jo behar zen. Alkalako ordenamendua gaztelako zuzenbidearen nortasuna eta balio lurraldetarra finkatuko du. Gaztelako zuzenbidearen ezaugarriak:

- Erregearen zuzenbidea, guztiz sendotua eta finkatua azaltzen da.
- Udalerrien zuzenbidea, kondizionatua, mugatua.
- Jaurerriatako zuzenbidea (señoriala) gaindituta, integratua geratuko da.

### **Erregearen eta erresumaren arteko erlazioa**

Gaztelako zuzenbidean eragin handia izan zuen erregearen autoritate ahaltsua. Gorteetan oso ugariak izaten ziren erregeek emandako ebazpen partikularrak, orokorrak ez diren arauetan. Hortik sortutako ebazpenak: pragmatikak. Pragmatikak, Gorteetan emandako legeen antzera, eduki orokorra izan zezaketen, eta balio hori eman nahi izaten zitzairen. Baina beste guztiak, egoera singular bat aldatzeko ematen ziren.



Erregearen zeregin administratzailea eta legegilea banatzea zaila zen eta ondorioz, ezinbesteko erlazioa sortu zen, helburu eta eduki orokorrek eta helburu singular batekin emandako legeen artean. Sor zitezkeen eztabaidetan, guztien interesen arloan zegoena, guztien artean hartutako erabakien bidez konpondu behar zen. Printzearen boterea izugarri murriztu zitekeenez, printzearen borondateak lege indarra hartzen du. Bi printzipio hauen arteko borroko gogorra nagusi izango da Erdi Aroan zehar. Erregeen botere arauemailea handia izanda ere, arauak aplikatzeko unean problemak agertu zitezkeen. Arau edo ebazpen batek, aplikatzerakoan legezotasun zalantzak izango balu, kalteturik suertatu zitezkeen pertsonak, beren eskuetan zegoena egingo zuten, ebazpenaren egikaritzaren aurrean. Zalantza kasu hauetan, erregeek ere onartu beharko zuten berehalako exekuzioaren aplikaezintasua, hor sortutako eztabaida argitu arte.

Ordenamendu guztietan, arau orokor eta singularren arteko erlazioak erregulatzen ziren.

Ordenamenduaren arabera ondorio juridiko ezberdinak izango dira lege singular eta orokorren arteko kontraesanak sortzen direnean.

“Obedézcse pero no se cumpla” formularen arabera, erregeak emandako aginduari men egin behar zitzaion baina konplitu gabe utzi ere egin zitezkeen. Hau printzipio oso garrantzitsua izango da ordenamendu juridikoaren barne-oreka lortzeko, maila orokorra eta singularraren arteko erlazio egokia lortzeko eta agindu eta exekuzio- faseak ongi lortzeko.

## **10. ERRESUMETAKO ZUZEBIDE OROKORRA**

### PRIVILEGIO DE CONTRATO POWER POINTA (KOFRADIAK)

**-Arriagako kofradia:** XI. Mendean, Arriagako kofradia Arabako jaurreria ( señorío ) gobernatzen zuen instituzioa zen. Nobleak biltzen zituen. Kofradiako lehenengo dokumentua 1258.( 18 baserri galdu ).Subiranotasun politikoa Nafarroako erregeei eta beranduago Gaztelako koroari zegokion. Justizia administratzailea. Kideek zuzenean hautatu edo alkateen bitartez. Gainera, Segurtasun eta babeserako ordezkaria zen.Lurraldeak ordenamendu juridiko propioa zeukan, erabilera eta ohituran oinarritua. Kofradia Arriagan biltzen zen, non ermita bat altxatu zen junta mediebal hauek goraipatzeko. Junta hauek, izaera asanblearioa goi auzitegi judiziala. Kofradiako jauna buru zelarik. Honen aurrean, ebatzi gabeko auziak aztertu.

**-Jaurreria:** Jaun baten edo jaun elkarte baten menpe dagoen lurraldea. Aipatutako izaki agintariak (gure kasuan kofradia bat) botere ekonomiko, politiko eta sozial guztia dauka. Feudalismo garaiko ondarea. Jaunen menpe mirabetza eta basailutza erregimenak mantentzen zituen. Jaun hauek nobleak edo elizgizonak izaten ziren. Jaurrerien lurralde eremuen hedadura erregeek euren borondatez emandako donazioen bitartez osatzen zen, jaunaren zerbitzu edo merituen truke. Jaurreriak Espainian 1812ko konstituzioaerkin abolituak izan ziren.

**-Realengoa:** Realengo bat koroak zuzenean gobernatutako lurralde bat da, hots botere jurisdikzional osoa daukana. Realengo bateko lurrak ez zuten koroaren jabetza izateko beharrik. Bertoko lurraldeak beste jabe batzuk izan zitzaketeen, baina ez lukete botere judizialik izango lur hauetan ( jaurrerian bezala)

**-Alfontso XI:** Aztertuko dugun testuaren egilea dugu, Gaztelako Erregea. Kargu honen jatorria bere aita Fernando IV.ren eskutik datorkio. Adin nagusitasuna lortzerakoan bilakatu zen errege 1325. Bere agintaritzapean botere erreala sendotu zuen, Gibraltargo itsasartearen gatazkak konpondu eta Algeciraseko konskita gauzatu. 1332an “ Privilegio de Contrato” onartu, Arabako lurraldeak Gaztelako Koroaren pean geldituz.

**-Pribilegio de contrato 1332:** Gure testua “ Privilegio de Contrato “ erabakiaren zati bat da. Bertan, 21 eskaerari erantzun egiten zaio. Aurekarriak eta 6. eskaera. Testu hau Arabako Erdi Aroko historia aztertzen duen liburu batean aurkitzen da. Hala ere, testu juridikotzat jotzen dugu. Arabako Kofradiak bere lurraldearen subiranotasunari uko. Kofradiak pribilegio batzuen mantetzea eskatu ( 21 eskaera ). Betebehar eta eskubideak sortzen ditu jauntxoekiko. **Iturri juridiko** baten aurrean gaudela.

**-Iturriaren identifikazioa:** *Autorea* : Alfontso XI eta beste sinatzaileak? Data : 1332eko apirilaren 2an kokatzen dugu, XIV. mendean, Behe Erdi Aroan. *Data* honen aurretik lurraldea ez zen homogenea egoera juridiko politikoan; zati bat erregetarra, bestea jaurerriarra ( Kofradia ). *Lekua*: Ocoako zelaietan, egungo Lakua.

**-Testuaren analisisia:** “Por ende nos catando esto queremos que sepan por este nuestro privilegio”  
(Testuaren egileek haien nagusitasuna adierazten dute, haien pribilegioaren arabera jokatzeko dutela. Nolabaiteko mesedea egiten ari direla)

“todos los omnes que agora son et seran daqui adelante” (Kofradiako guztiei zuzendua)

“todos los otros fijosdalgo de Alava asi ricos omnes et infanzones et cavalleros et clerigos et escuderos fijosdalgo commo otros qualesquier confrades que solian seer de la confradria de Alava”  
(nortzuei zuzenduta doa).

“et renunciaron et se partieron de nunca aver confradria nin ayuntamiento en el campo de Arriaga nin otro logar ninguno a boz de confradria nin que se llamen confrades”

(Kofradia desagiten da)

“nos otorgaron la tierra de Alava que oviessemos ende el sennorio et fuesse realenga et la pusieron en la Corona de los nuestros regnos”

(Jaurerria desagiten da. Realengo bilakatu. Koroaren pean)

“renunciaron fuero et usso et costumbre que avian en esta razon para agora et para siempre iamas”

(Foruei uko egin)

“Et sobresto fizieron nos sus peticiones.” “nos pidieron por mercet”

(Koroan sartzea borondatez egin zuten eskakizun batzuen truke, ez zen zuzenean inposatua izan. )

“que otorgassemos a los fijosdalgo et a todos los otros de la tierra el fuero et los privilegios que ha Portiella d’Ibda”

(6.eskakizuna. Foru berria onartu)

A esto respondemos que otorgamos et tenemos por bien que los fijosdalgo ayan el fuero de Soportiella para seer quitos et libres ellos et sus bienes de pecho; et quanto en los otros pleitos et en la iusticia tenemos por bien que ellos et todos los otros de Alava ayan el fuero de las leyes

(6. eskakizunari erantzuna. )

## **GIPUZKOA, BIZKAIA ETA ARABA.**

Birpopulakuntzan Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak betetzen zuten espazio geografikoa, 1200.urtera arte Gaztela eta Nafarroak bereganatu nahi izan zuten, lurralde hedapenari eta itsasorako bideari begira egokiak zirelako. Lurralde hauek hainbat aukera eskaintzen zituzten: seguruak ziren, arriskuzko lurraldeetatik urruti, itsasorako irteera ona zuten eta mesetarekin ondo komunikatuak zeuden.

Alfontso X.ak gaztelar mesetatik Kantabriar itsas ertzera zihoan Santiago-Bide zeharkako bat eraiki nahi zuen. Horretarako arabatik Gipuzkoarako bidea segurtatu behar zuen, zenbait hiri kokatuz. Horrela hainbat hiri sortu ziren: Tolosa, Bergara, Trebiño... Hiri erregetar hauek benetako autonomia lortzen dute erregearen aurrean baina bere helburu politiko orokorren zerbitzuari uko egin gabe. Hiriek hartzen zuten esparrua Lur Laua zen eta bertan, zuzenbide libre eta erregearen kontrolpetik kanpokoak zeukaten. Hirien eraiketak habitat mota berria ekarri zuten, paisaia aldatu egingo da, kontzentrazioaren beharra oso argia zen, hiri hauek biztanleak “elkarganatzten” zituztelarik. Alfontso X.a Araban eta Gipuzkoan hiri-sortze bikaina egingo du.

## **ZUZENBIDEAREN FORMULAZIO EZBERDINAK**

Hirien eraikuntzak, errege eta jaurerrien arteko oposizioa nabarmendu zuen, bakoitzak bere zuzenbide-mota zeukalako. Hirien autonomia ez zion kalterik egiten erregearen autoritateari. Erregeak ez zuen hirietan bestelako ofizial propiorik baina bere autoritatea bermatuta zegoen, batez ere XIV. Mendean korrejidoreak lurralde bakoitzean bere ordezkari moduan finkatu zirenetik. Jaurerrietako zuzenbideak erregearen eta hirien aurka azaltzen ziren. Zuzenbide hau, nahiko baztertuta geratu zen Alkalako Ordenamenduaren ostean. Bizkaiako eta Arabako jaurerriak beren berezitasunak zeukaten.

Gipuzkoan nahiko erraza izan zen uniformazio prozesua (ia lurralde guztiak erregetarrak ziren), Hermandade-karten bidez lortuko dena. Araban, 1332ko apirilaren 2an erregeak **pribilegio del contrato** delakoa emango du. Kofraia desegin egin zen eta Araba lehen jaurerri eta erregetarra zena, lurralde guztia errealengoa izatera pasako da, eta Foru Errealak aplikatuko da. Honen truke, arabar infantzoiei onartu egingo zaizkie lehendik zeukaten eskubideak, ekonomian, lurralde-egituran, prozedura judizialean, abantaila fiskaletan eta nekaraziengan zituzten eskubideetan. Bizkaian lurralde guztiz haurerriara zen eta hiriek erabateko ezberdintasuna ezartzen zuten, erregearen egitura eta komunitatearena bereizita. Hiriak eta lur lauak bata bestearen aurrean jarri daitezke, nahiz eta biak jaurerriaren parte izan (1630 urtera arte gatazkak izan zituzten beraien artean). Lur lauak bere zuzenbidea formulatu nahi izan zuen, bere ordenamendua onartzeko. Zuzenbide hau bere etorkizuna segurtatuko du, forma idatzia eta “legala” hartuz.

## **6. NAFARROA. ARAGOIKO KOROAKO ERRESUMAK**

### **11.NAFARROAKO ZUZENBIDEA.**

XIII.Mendean, Gaztelak, Frantzia eta Aragoik inguru guztiak ixten zizkionenez oso mugatuta zeukan Nafarroak bere hazkunde ahalmena. Gainera, ez zegoen oraindik zuzenbidearen idazkera sistematikorik. “Franco”-motako zuzenbidea zeukaten. Teobaldo I.ak Erresumako Foruak onartu behar izan zituen (1234ean) “Fuero Antigo” izenarekin ezagutzen dena. Zuzenbide propio honek bazuen bere eragina. Nabaria izan zen justiziaren administrazioaren espezializazioa, eta erregeen “merino” eta “alkateak” beste modu hierarkikoan antolatuta ziren. Epaiketetan, zuzenbidearen emaitzak eta esperientzia berriaren fruituak jasotzeko interes garbia azaldu zen; eraginez, zuzenbide uniformizatu baten bildumak eta formulazio pribatuak sortu ziren. Beraz, Erdi Aroan, Nafarroako zuzenbidean lurralde guztirako foru uniforme baten presentzia daukagu. Nafarroako zuzenbidea ohiturazkoa eta herri-sustrakoa da. Hala eta guztiz ere, zenbait arlotan, zuzenbide erromatarrak nahitaezko eragina izan zuen.

## **12. ARAGOIKO OHITURAZKO ZUZENBIDEA: 1247KO ARAGOIKO FORUAK.**

Bere tradizioa Jakako foruan gauzatu zen. Nafarroarekin lotura handiak zituen. Aragoiko erresuma Kataluniarekin batu zen ezkontza baten bidez eta Aragoiko koroa sortu zen. Nahiz eta errege bera izan, bere nortasuna, ordenamendu juridikoa eta instituzioak elkarrekin nahasi gabe mantendu ziren.

Aragoi osorako balio zezakeen zuzenbidea Jaka eta Zaragozako foru-ereduetatik ateratakoa zen. Aragoiko foruaren idea sendotu zen eta tradizio hori idatziz jarri beharra ikusi zuen erregeak (Jaime I). Aragoiko foruak 1247an promulgatu ziren, lehen idazkera zortzi liburutan banatzen zen. Foruen bi bertsio: luzea (Vidal Maior) eta laburra (Fueros de Aragon). Azkeneko bertsioa, erresumaren zuzenbide ofiziala eskaintzeko gauza izan zen. Ez zituen bere baitan hartzen arazo publiko eta politikoak. Foru hauen ezaugarria: ohitura ia iturri bakartzat hartzen zuen. Aragoiko zuzenbidearen oinarria osatuko dute. Arau hauek balio orokorra izateko Gortetan onartu behar ziren, beraz, gizartearen partehartzea beharrezkoa zen zuzenbidea sortzerakoan. Legeak, erregeak ematen du, baina Gorteen onarpena beharrezkoa da arau berri bat, foru bat, eranstea, eta aldaketak ezartzeko ere bai.

Aragoarrei, pribilegio-sorta onartu zien erregeak: “Privilegio General de Aragón” delakoa; eskubide oso esanguratsuak lortuko dituzte aragoarrek. Koroako beste bi erresumetan ere, lortuko dira helburu juridiko-politiko horiek eta horrela, erresuma bakoitzeko zuzenbideak oinarri propioa izango du.

Foru hauen aplikazioan, interpretazio problemak agertu ziren. Arazo hau konpontzeko organo pertsonala “Justicia” delakoa izango da (pertsona batek betetzen duen karguari ematen zaio izen hori). Aholkulari propioak zeuzkan, bere “lugarteniente”ak, bertako zuzenbidea ondo ezagutzen zutenak eta horrela foruen eraginkortasuna lortzen zen, foruen balioa garatzeko organoa zelako. Foruetatik atera behar zen doktrina eta foruen indarren emaitzak “observancias” deitu zitzairen. Obserbantzia hauen bilduma idatziak egingo dira. Aragoiko zuzenbidea osatzen zuten foruek eta obserbantziak, bata bestearen osagarri zirelako.

Zuzenbide komunaren harrera berezia eman zitzaion Aragoian. Ez zen Zuzenbide Komunaren harpen espliziturik aitortzen, bakarrik autoritate zientifikoa onartzen zitzaion. Bere aplikagarritasuna, aragoar ordenamenduarekin ados egotearen menpean jartzen zen. Harpen apal honek ez du esan nahi influentziarik izan ez zuenik.

### **13. KATALUNIAKO ZUZENBIDEA: “USATGES”**

Karolingiarrek konderri hauei beren zuzenbidea mantentzeko eskubidea onartu zieten eta horrela azaldu daiteke Liber Iudiciorum-aren irautea lurralde hauetan. Konderri hauek beren zuzenbidea, tradizio erromatarrean eta, gero, bisigodoan oinarritutakoa, garatu zuten XI.mendean. Errege hauen askatzeak botere-hutsune bat ekarri zuen eta Bartzelonako konderriaren indar eta eragin berezia azalduko da. Beharrezkoak ziren kondeen arteko harreman minimo batzuk eta oinarrizko bake publiko bat.

XI.mendean botere publikoaren eragina oso ahula zen oraindik. Garai horretan, gatazkak konpontzeko azken erabakiak emango dituen autoritate eta prestigiodun epaitegia, Bartzelonako Kondearena izango da.

XII.mendean Bartzelonako kondeen gorteak emandako erabakiak jurisprudentzia edo “stilus curiae” propio bat sortu zuten.

Liber Iudiciorum-ek ez zuen baliorik Kataluniako gizarte guztiz feudalizatuan, zuzenbidea zegokion neurrian aldatu eta egokitu behar zen egoera berrira. Bartzelonako kondearen nagusitasuna Printze edo Erregearen mailakoa izango da XII. Mendean eta araudi honen bidez sortzen zen zuzenbide bereziak, lehentasun osoa lortu zuen, Liberra ordezkotzat hartzen zelarik. Kataluniako zuzenbidea (usatges) 174 kapitulu izango dituzte. 1251ean balio ofiziala emango zaiona, Katalunia osoan hedatuta zegoela eta bertako zuzenbide propioaren oinarria zela konfirmatuz. Usatges haien “gainean” Kataluniako zuzenbidea gero eta aberatsagoa akumulatu zitekeen (funtzio hori Gorteek beteko dute). Kataluniako zuzenbide orokorra sortzeko bideak Gorteetan erabakitakoan oinarritzen ziren. Gorteetan emandako arauak, Katalunian “constitució” izena hartu zuten. Gorteetan erregeak “constitució”-ak ematen zituen heinean, Kataluniako zuzenbidea behar zen neurrian hasi zen sortzen, gero eta eduki zabalagoa hartuz.

Katalunian Zuzenbide Komunari harpen izugarri irekia egin zitzaion, bertako juristek adierazten zuten zuzenbide propioak aurreikusten ez zuena Zuzenbide Komunari zegokiola. Harpenarekin erregeak bere burua gutxituta ikus zezakeenez zenbait problema politiko sortu ziren. Erregeak erabaki zuen ezin zela Liberra aplikatu eta lege erromatarrak ere ez; baina ez zuen lortu, Zuzenbide Komunaren sarrera Katalunian ezinbestekoa zelako. Zuzenbide propio eta zuzenbide komunaren arteko erlazioa, elkarrekiko osagarritasunean oinarritzen dela esan daiteke.

## **7. MONARKIA HISPANIARRA. BERE EGITURA JURIDIKOA.**

### **14. MONARKIA HISPANIARRAREN ZUZENBIDEA. FORUEN ABOLIZIOA.**

#### **ERREKOPILAZIOAK.**

XVI. Mendean Gaztelako Isabel eta Aragoiko Fernando ezkondu zirenean, beraien koroen arteko batasuna sortu zen, nahiz eta erresumek zeukaten egitura juridiko propioa aldatu ez. Bakoitzak bere ordenamendu eta instituzioak (gorreak batez ere) mantenduko ditu. Beraien lotura maila berean egongo da eta ez du inolako elkar-menpekotasunik sortuko.

Fernando katolikoak Nafarroa konkistatu zuenean (1512an) dinastia galdu zuen eta Monarkia Hispaniaren parte izatera pasa zen baina nortasun juridiko berariazkoa mantendu zuen.

Monarkia Hispaniarra Inperio handi baten itxura hartu zuen; egitura zabal bat osatzen zuen. Bere barnean jurisdikzio propioak entean zeuden, ordenamendu juridiko osoak eta buruaskiak zeuzkatenak ("reinos de por sí"), beraien artean maila horizontaleko erlazioa osatzen zuten. Ordenamendu juridiko osoak zituzten ente lurraldetarrak ziren eta auzitegi gorenak lurraldearen barnean kokatzen ziren. Lurraldeen arteko instituzio komuna: erregea. Ezin zuenez leku guztietan egon erregeordeak izendatu zituen. Erregea kanpoan egoteak, Gorreek beren funtzionamendu normala ezin mantentzea ekarri zuen eta krisi nabarian sartuko dira.

Isabel eta Fernando ezkontzean, kontratu bat sinatu zuten, zeinaren arabera, bere lurraldeak ez ziren batzen, ez nahasten, beren nortasun osoa eta instituzio propioak mantentzen zituzten. Gaztelan zeudenean Gaztelako gobernuari hartuko diren erabaki guztietan Isabelen baimena behar zen. Errege hauek baimenak emango dizkiote elkarri, bakoitzak bestearen gobernazioan parte hartzeko. Bakoitzak bere erresumaren jabetza mantentzen zuen, gobernazioa zen konpartitzen zuten bakarra, mugak oso garbi jarritz. Beren koroak egitura instituzionalak mantentzen zituzten.

Isabel hil zenean (1504) oinordetza bere alaba Juanari zegokion, Flandria eta Borgoñako Feliperekin ezkondu. Juana erotutzat hartu zutenez, bere testamentuan erabaki zuen Fernandok gaztelako gobernari eta erregentea izatea. Baina Feliperen aldeko mugimendu bat sortu zen eta Fernandok gobernari izateari uko egin behar izan zion. Isabel hiltzean, lotura dinastikoa amaitu zen eta bloke bakoitzak bere bidetik jarraitu zuen. Felipe, 1506. urtean hil zen. Juanaren erotazunagatik Tordesillas-ko komentua batean sartu zuten eta Fernandori Gaztelaatik deitu zioten berriz gobernari izateko. 1507tik 1516ra, hil arte, Fernando izan zen Gaztelako erregentea eta Aragoiko koroaren erregea. Fernandok Nafarroa konkistatu zuen 1512an. Nafarroak dinastia galdu zuen eta Monarkia Hispaniaren parte izatera pasa zen baina nortasun juridiko berariazkoa mantendu zuen.



Bere oinordetza Juanaren Karlos semeari utzi zion. Karlos frandiarra zen eta bere aitaren aldeko oinordetza berari zegokion (Flandria eta Borgoña). Austria eta Inperio Germaniarra bere esku ere utzi zion Feliperen aitak, Maximiliano enperadorea. Bere esku: Inperio Germaniarra (Austria eta Alemania), Flandria eta Borgoña, Aragoiko koroa, Gaztela eta Ameriketako aurkitzen ari ziren lurralde berriak.

Karlosek, Eliza katolikoaren baimenarekin, mundu katolikoaren buru sentitzen zen eta fede katolikoaren eta lurralde germaniarraren batasuna mantendu nahian mugimendu protestanteari aurre egin behar izan zion. Erreinu bakoitzaren errege zelarik, errespetatu behar zituen erreinuen ordenamendu juridikoak eta instituzioak.

Bere semearengana (Felipe II) erregetza pasa zenean (1555ean) jaraunspen osoa jaso zuen. Alemania-Austriako blokea protestantismoa finkatu zen eta Karlosen anaiarengana (Fernando) pasa zen. Felipe II. Mandrilen finkatu zuen Monarkiaren hiriburua.

Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak egoera juridiko propioaz gozatzeko ahalmena eta eskubidea zeukaten, ezaugarri eta elementu bereziak bereak zituztelako.

Erresuma bakoitzak jurisdikzio alor propio bat zeukan, nahiz eta txikia izan, buruaskiak ziren. Erregeak jurisdikzioadun ente guztien egoera errespetatu behar zuen. Hain lurralde handietako erregeek, botere sendo eta trinkoagoa behar zuten, boterea areagotzeko gero eta premia handiagoa ikusten zelako. Erregeen boterea zenbait ahalmen eskusibotan oinarritzen zen “erregalia” deiturikoak. Monarkia hispaniarrean erregeak erregalia horiek ez zituen egikaritzen modu eta neurri berdinean, erresumen egitura juridiko-politikoaren arabera baizik. Aportazio militarrean eta zerga-arloan ezberdintasun handiak zeuden. XVII. Mendean hasi zen monarkia gauzak aldatu nahian. Felipe IV.ari bere lehen ministroa Konde-Duke Olivares 1624ean Gaztelako legeak erresuma guztietan aplikatzea eskatu zion; hango legeak zirelako erregeari botere eta erraztasun handienak emanten zizkionak.

Karlos II.a hil ondoren 1700ean Oinordetza gerra (1700-1714) piztu zen, ondorioz, Aragoiko Koroako erresumek beren ordenamendu juridiko publikoak galdu zituzten. XVII. Mendeko problema: oreka juridikoa eta lurraldeen arteko harremanen krisia. Hispaniar Monarkiak Europako hegemonia lortu nahi zuen eta europa mailan “Hogeita hamar urteko gudua” piztu zen (1618-1648). Batez ere Espainia eta Frantziaren arteko gerra izan zen. Pakea sinatzean, europako bi bloke dinastiko idartuak gelditu ziren: Habsburgotarra eta Borbondarra. Hispaniar monarkian,

ordenamendu juridikoen ezberdintasunak oztupo nabariak ziren eta egoera juridiko orokorra berdindu beharra zegoen.

### ONDORENGOTZA GERRAREN POWER POINT:

**-Aurrekariak:** Karlos IIaren hilketarekin, 1700 urtean, Espainian Ondorengotza Gerra piztu zen, Karlos ez zuelako semeirik izan. Karlos, jakinda oinordetza izango ez zuela, Espainiako errege izendatzeko 3 hautagai hartu zituen: Jose Fernando de Baviera (Erregearen eta europar potentzien gogokoena), Austriako Karlos artxidukea eta Felipe de Anjou (Luis XIVren biloba, Frantziako erregea). Hasiere batean europar potentziek lurraldea 3 zatitan banatzea nahi izan zuten, eta horretarako zatiketarako lehen tratatua sinatu zuten (tratado de primera partición), hala ere, Karlos II ari ez zitzaion ideia gustatu, eta europar potentziekin Bavierako Jose Fernando jartzea adostu zuen, bera zen beste potentzietako mehatxu ez zelako (batzeko beldurra). Hala ere, 1699an Bavierako Jose Fernando hil egin zen, eta hórrela europako potentziek zatiketarako bigarren tratatua sinatu zuten, erreinua bien artean banatzeko. Karlos II.ak, espainiaren batasuna mantendu nahian, Anjouko Felipe izendatu zuen oinordeko, baldin eta bera bere ondorengotza eskubideari Frantzian uko egiten bazion. Anjouko Felipe espainiako errege izendatuta, Felipe V.a bezala, Luis XIVak, Frantziako erregeak, ondorengotza eskubidea mantenduko zuela esan zuen, eta hórrela Ondorengotza gerra piztu zen.

**-Felipe V:** 1683ko abenduaren 19an jaio zen Versaillesen eta hil zen 1746ko uztailearen 9an Madrilen. Espainiaren errege izan zen 1700ko azaroaren 16tik 1724ko urtarrilaren 15 terarte bitartean. Ostean bere semea, Luis I jarri zen, baina urte horretako irailaren 6tik bere heriotzararte errege izan zen. 45 urteko erregealdia. Carlos II.aren ondorengoa izan zen eta beraz Borboi etxearen errege bihurtu zen. Estatu kontseilura presidentea eta Gaztelako Koroa Alde Espainian.

**-Karlos Austriakoa:** Izena: Sacro imperio Romano-Germanikoaren Carlos VI. 1685ko urriaren 1ean jaio zen Vienan eta hil zen, 1740ko urriaren 20an Vienan. Sacro imperio Romano-Germanikoaren enperadore, 1711 eta 1740. artean. Hungariako errege, 1711 eta 1740. urteen artean. Bohemiako errege, 1711 eta 1740. urteen artean. Mariana de Neoburgo (Carlos IIaren emaztea) eta Aragoiko Koroaren alde.

**-Oinordetza gerra, gerra internazionala bezala:** Luis XIV.ak, bere biloba oinordetza eskubidea mantenduko zuela esatean, Europako potentziek beldurtu ziren, Frantzia eta Espainia bateratu ahal zirelako. Bi bando egon ziren aspektu internazionaletik: Espainia eta Frantzia alde batetik eta Haiako aliantza handia bestetik (Herbereak, Danimarka, Austria, Portugal, Saboya, Hannover eta Ingalaterra). Arlo internazionallean haiako aliantzak garaitu zuen, eta horregatik Espainia eta

Frantziako erregek bakea bilatzera derrigortu zituzten, 1713an Utrecheko bakea sinatu zen arte

**-Ondorengotza gerra, gerra zibil bezala:** Austriako hautagaiak Aragoiko, Valentziako, Kataluniako eta Balearrak izan zituen alde, aliatuez gain. Felipe V.ak Gaztelako erregeen eta Frantziaren laguntza izan zuen Hasiera batean Austriako etxeak irabazi zuen, baina Felipe V.ak kolpe latzak eman zizkion 3 guda nagusietan: Almansan (1707) Brihuegan eta Villaviciosan (1710). Gainera, 1711an Karlos Artxidukea Austriako inperioko enperadore bihurtu zen, eta Ingalaterra eta Herbereen laguntza galdu zuen (Austria eta Espainia batzeko beldurra). Nahiz eta gerra amaitu 1713an, Mallorkan eta Katalunian gehiago iraun zuen, 1714 eta 1715erarte, Felipe V.ak garaitu baitzituen urte horietan.

**-Utrecheko bakea:** 1713an sinatu zen, eta ondorengotza gerraren amaiera izan zen. Ondorio nahiko garrantzitsuak izan zituen: Espainiako monarkiak zituen lurraldeak Europan galdu zituen (Milan, Cerdeña, Napoli eta Flandes), eta Ingalaterrak Menorka eta Gibraltarekin geratu zen, Felipe V.a Espainiako erregetzat aitortu zuten, betiere Frantziako koroari uko egiten bazion eta azkenik, aliantzako herriek Amerikan komertzio egiteko pribilegio batzuk irabazi zuten.

**-Oin berriko dekretuak:** Espainiako errege berriak hartu zituen neurri garrantzitsuenak Oin Berriko Dekretuak izan ziren. Aragoiko Koroaren antzinako lurraldeetan aplikatu ziren. 1707an Aragoi eta Valentzian aplikatu ziren; 1715ean Mallorcan; eta 1716an Katalunian. Aipatutako lurraldeetan foruak eta erakundeak ezabatzeaz gain, bestean beste, Gorteak, horietako bakoitzean kapitain nagusia, antzinako erregeordearen orde, eta audientzia ezarri ziren, eta tributu-sistema berria finkatu zen. Oin berriko dekretuen bidez estatu zentralista eta uniformista eratzen zen. Planta Berriko Dekretuak helburu izan zuten Felipe V erregearen aurka altxatu zirenak zigortzea. Lehen dekretuetan aipaturik azaltzen zen, aitzakiatzat hartzen zela "konkista eskubidea" Oin Berriko Dekretua ezartzeko. Horregatik, Euskaldunen eta Nafarren foruak ez ziren ukitu.

**-Planta berriko dekretua: Aragoi eta Valentzia.** Erreinu eta Aragoiko Koroko eskualdeko foru propio ia gehienak abolitu zituzten eta organizazio politiko-administratibo berria zabaldu zuten. Aipatutako organizazioa Gaztelako eremuan ematen zen organizazioan oinarritzen zen. Horrez gain, gaztelaren erabilera beharrezkotzat jo zuten administrazioaren alorrean, hau da, gaztelera hizkuntza administratiboa bilatuz (erabiltzen ez zen administrazioetan). Monarkia absolutista frantsesaren eredu zentralista jarraitzen zuen. Aurrerakuntza eta atzerakuntza horien artean, 1907 Ekainaren 29an argitaratu ziren Aragoiko eta Valentziako dekretuak, bi Erreinetan sistema legegile eta instituzionalaren abolizioa ekarri

**-Planta berriko dekretuak: Mallorka eta katalunia.** Hirugarren dekretua Mallorcakoa izan zen. 1715ko azaroaren 28an argitaratu zen. Esan beharra dago dekretu hau adeitsuagoa izan zela, jarrera

negoziatzaile baten emaitza izanez. Laugarren dekretuak Kataluniarengan soilik izan zuen eragina, 1715eko urriaren 9an diktatu zen. Gorteak eta “Consejo de ciento” delakoa abolitu zituen. Ordezkatu egin zen erregeordea kapitain jeneral bategatik. Katalunia 12 zatitan banatzen dute, Gaztelan bezala.”Sometele” delakoak debekatu egiten dira( Someteleak Aragoiko eta Kataluniako milizia popularrak ziren). Katastroa ezarri zen. Horrez gain, unibertsitate Katalanak zarratu egin ziren eta Cerverara eraman ziren. Aipatzekoa da errege audientziako auziak gaztelaniaz izapidetzea ezarri zela, katalanaren kaltetan. Aipagarria da Valentziak salbu bere zuzenbide zibil propioa mantendu zutela.

## **FORUEN ABOLIZIOA: ARAGOIKO KOROA ETA “NUEVA PLANTA”KO DEKRETUAK.**

Karlos II. Hiltzean Felipe Espainiarra etorri zen bere erregetzari hasiera emateko. Oinordetza gerra piztu zen lehenengo europa mailan eta iberiar penintsulan geroago (1705etik aurrera). Beraz, nazioarteko gerra zen alde batetik eta gerra zibila bestetik. Felipe garaile ateratzean, bere aurka aritu zirenei, Aragoiko Koroakoei, konkista eskubidea aplikatu zien. Aragoi eta Valentziako foruak **abolituak** izan ziren 1707an errege-dekretu baten bitartez, foru horien edukia suntsitu zuen bai arlo publikoan eta bai pribatuan bere lekuan Gaztelako zuzenbidea jarritz. Valentziako foruak ez dute jarraipenik izango, baina Aragoiko foruek bai, arlo pribatuan, 1711ko **“Decreto de Nueva Planta”** delakoaren bidez. Baina zuzenbide publikoa ezabapen osoa jasango du: Gorteak, Auzitegi Gorena... aldatuak izan ziren eta Gaztelakoagatik ordezkatuak izan ziren.

Katalunian eta Mallorkan gauza bera gertatu zen, bere ordenamendu pribatua mantentzeko aukera izan zuten gerra amaitu ostean “Nueva planta”-ko dekretuen bidez (1716koak). Nueva Planta-ko dekretuek, Gorteak, Diputazioa, udal antolaketa eta justiziaren administraziorako organoak aldatu zituzten (“Nueva Planta” izena erabiltzen da Entzutegiari “planta” edo molde berria ezartzen zaiolako). Dekretu hauetan esaten da zuzenbide pribatua, penala eta prozesala Dekretuen aurreko zuzenbidea indarrean iraungo zuela. Ez zen horrela izan euskal lurraldeetan, gerran errege borbondarraren alde jarri zirelako eta ondorioz beren foruen gozamenean jarraitzeko aukera izan zuten.

## **ERREKOPILAZIOAK**

Aro Berrira pasatzean (XVI. Mendean) zuzenbidearen iturriak legea eta doktrina izanik, indarrean zeuden arauen kopuruak eta iturri ezberdinen arteko erlazioak beharrezkoak egin zuten errekopilazio-prozesua. Deboran zehar sortutako zuzenbidea zehaztu eta bildumatu behar zen abokatu eta epaileak argi izateko zertan zetzan aplikatu behar zen zuzenbidea. Ordenatze eta

argitzen beharra azaltzen zen. Zuzenbidea bildumatzean, tradizio juridiko osoa bermatzen da eta iraganeko zuzenbidea, bilduma egiten den garaiko zuzenbide bihurtzen da. Horrela, baita ere indarrean zegoen zuzenbidea ordenatu egiten zen. XVI. Eta XVIII-XIX mendeak “errekopilazio garaia” izena jarri zaio. Inprentaren garaia zen eta horregatik eragin biderkatzailea izan zuen. Lege-liburuak, indarrean zeuden arauak agertzen zituztenak, askoz merkeagoak ziren eta, batez ere, segurtasun askoz handiagoa eskaintzen zuten. Errekopilazioa bera ez zen zuzenbide sortze lana, ordenazio lana baizik. Ez zen araua sortzen, baizik jadanik indarrean zegoena, kopiatuz, errepikatu egiten zen. Lan tekniko hutsa zen. Bere helburua: zuzenbideari behar zuen publikitatea ematea zen, ezaguera erraztuz. Prozesua lan teknikoa izan bazen ere, ez zen beti prozesu neutro eta baketsua izan, bilduma egiteko interesa nondik zetorren edo zertarako nahi izatearen arabera faktore politikoek parte hartzen zuten.

Errekopilazioak egiteko irizpideak sailkatzeko faktore ezberdinak:

- Ekimena: egiteko inizatiba nori dagokion. Errekopilazioa pribatua izan daiteke, pertsona partikular batek erabaki izan badu egitea. Bere erabilgarritasunagatik eta praktikan jasotako erabiltze zuzen eta arruntagatik, balio ofizialaren mailara iritsi daiteke. Erregeak edo Gorteen bilduma bat egitea agintzean, ofizialtzat jotzen zen eta promulgatu egiten zen, balio eskusiboa lortuz (berak bakarrik izango du balioa eta aplikagarritasuna).
- Teknika. Xedapenen erreproduzio literala, hitzez hitz egindakoa izan daiteke; historian zehar emandako arauak osorik kopiatzen dira, hasierako eta amaierako formula guztiak errepikatuz. Birmoldatzeko soluzioaren alde jotzen duena da beste teknika bat, xedapenen parte bat hartzen da, zati dispositibo edo erabakitzailea, honela posible izango da gauza bera esaten duten arauak edo gai bera edukizat dutenak bateratzea. Hala eta guztiz ere, beste teknika bat dago, arauak denboran zehar sortu diren ordenean azaltzea, honi errekopilazio kronologikoa deritzogu hain zuzen ere, baina arauen gaiak nahasiak eta sakabanatuak azalduko zaizkigu.

Laster pasa ziren errekopilazio sistematikoak egitera. Horrek eskatzen zuen aurretik gaiak sistematzea eta zerrendatzea, arrazoizko orden bat prestatuz. Honelakoak izan ziren errekopilazio gehienak.

Errekopilazioen problema izan da atzeratuak gelditzen zirela, xedapenen sortze eta ematea ez zelako gelditzen. Eranskinak edo berrargitalpenak egiten ziren, indarrean zeuden arauak argitzeko. Indarrean ez zeuden arauak ere errekopilatzen ziren.

## **8.ZUZENBIDEA ILUSTRAZIAREN MENDEAN**

### **15. ZUZENBIDE KOMUNAREN SISTEMAREN KRISIA ESPAINIAN: “DERECHO PATRIO”.**

Ondorengotza gerrak, “Nueva Planta”-ko dekretuak, Borbondarren garaiko egoera juridiko berri bat ekarri zituen. Aragoiko koroa, Gaztelako zuzenbide publikoko moldeetara pasa zen. Aragoiko ordenamendu juridikoak, bere aurpegi publikoa galdu zuen. Legegintzarako erakundeak ezabatu egin ziren. Horrela, erregearen zuzenbidearen indartze prozesua Gaztelako zuzenbidean oinarritu zen eta penintsula osorako hedatzeko joera hartu zuen. Batetik, tradizio sendo eta indartsua zelako eta bestetik, Gaztela Feliperen alde jarri zelako gerran. Arrazoirik handiena, Gaztelako tradizio juridikoa zen erregearen zuzenbideari ahalmen handiena ematen ziona. Bere lege-sortzaile indarra, ekialdeko erresumetako baino finkatuago zegoen. Erregea aritzen zen legegintza-funtzioan, legegintzako erakundeak (Gorteak) kontuan izan barik. Ondorioz, erregearen zuzenbideak hazkunde izugarria zuen Gaztelan. Erregeak uste zuen, Partidak, Alcalako ordenamendua, Toroko legeak eta Gaztelako erregek emandako pragmatika, penintsulako ordenamendua osatzen zutela.

Erregearen zuzenbideak, penintsulako ekialdeko erresumen zuzenbidea bereganatu zuen. Zuzenbide honek aplikazio zuzeneko eta guztiz autonomia lortzeko, oraindik zeukan alboan zuzenbide komuna. Zuzenbide publikoa erregearen zuzenbidea integratu behar zuen. Erakunde publikoak berdindu behar ziren (Gorteak, diputazioak, etab.). Espainia osoa erresuma bakartzat hartzen hasi zen eta beraz lortu nahi zena: zuzenbide erromatarra baztertzea eta erresuma osoak zuzenbide propio bat izatea zen (“derecho patrio”/zuzenbide patrioa). Gaztelako kontseiluan erabaki (1713an) bat hartu zuten: erromatar-kanoniko tradizioa “leyes extranjas” izendatu ziren.. Erromanismoa ezin zitekeen ezabatu, Gaztelako zuzenbidearen interpretaziorako erabiltzen zelako. Erromanismoak aitortu nahi ez bazen ere, bizirik jarraitu zuen XVIII. mendean. Zuzenbide komunaren aurkako joko horretan, 1741an “auto-acordado” bat egin zen. Baina erregearen aldekoek, boterera igotzean, leku gehiago emango diote “patriaren” joerari eta erresumen legeen alde jokatuko dute: Derecho Patrio kotsakratu zen.

Urte hauetan, unibertsitatearen ikasketa plangintzak eta metodoak aldatuz. Ikasketa plangintza berria sortuko da, Carlos III.ak ezartzen dituen erreformekin. Batetik, erresumaren eta Erromako zuzenbidearen legeen zerikusia bilatu beharko da. Irakurketa zuzenekoan erregearen zuzenbidea bakarrik aztertu, eskuliburuak egingo dira. Zuzenbidea ikasteko plangintza berriak egingo dira, 12 urtekoak: [4 urte batxilergoa, “leyes del reino” aztertuz],[beste 4 urte, zuzenbide erregetarra eta kanonikoa ikasten] eta [2 urte, praktika profesionala]. Erromatar zuzenbidea bigarren mailan geratu zen.

Iusnaturalimo europarra XVIII. mende-azkenaldian sartu zen Espainian, “Derecho Natutal de Gentes”) katedraren bidez, baina Carlos IVak kendu eta “Filosofia moral” jarri zuen. Iusnaturalismoak ez zuen ate irekian aurkitu Espainian.

## 16. KODEGINTZA AURREKOA: IUSNATURALISMOA; USUS MODERNUS PANDECTARUM.

XVI. mendeko humanismo juridikoa, erromatar zuzenbidearen azterketa bide berriak jorratu zituen. Ekarpen berezia, arrazionalismoa eta iturri juridikoen azterketa kritikoa izan zen. Faktore hauek pixkanaka zientzia juridiko berri baten oinarriak ekarri zituen. XVIII. Mendean iusnaturalismo berria sortu zen [zuzenbidearen alorrean: iturri arrazionalak, zuzenbidearen printzipioak eta erregela orokorra identifikatzen zen], uste zen posible zela atal batzuk (zuzenbidezkoak) dedukzioz ateratzea.

Humanismoaren eragina, Alemanian, Frantzian eta Holandan jorratzen hasi ziren. Bide honetatik, nazio bakoitzaren zuzenbide propioa suspertzea eta instituzioek eskatzen zituen egoerei, erantzun berria ematea zen helburu. Arrazionalismo juridikoa aplikatu zen arlo honetan. Zuzenbide erromatarrari etekin berria eman zion, horretarako “ratio”-a atera behar zuen. Zuzenbide erromatarrak, aztertze ahalmena zuen bezala, Filosofia, gizarte, mundua, izadia... sistematu egin zitekeen, printzipioak aurkituz. Filosofia, elementu komun anitz zituzten metodo aldaketa nola lortu zen esplikatzerakoan: autoritateen erlabitizazioa (jurista famatuen balioa toki apalago batean ipintzea). Hugo Grozio esan zuen moduan, zuzenbide naturalaren balioa ez da jainkoaren existentzia aprioristikoan oinarritzen, berez duen balioan baizik.

Ikuspegi juridiko praktikoan, Espainian zuzenbide “patria” suspertu nahi zen garaian, Frantzian Domat-ek idatzi bat egin zuen [zuzenbide erromatarra sistema logiko baten barnean sartzen zen, arrazoi “logikoak” eskatzen zuena. Helburua, frantziako zuzenbide osotu bat eraikitzea zen, Z.erromatarreko oinarriekin].

Edozein nazio-zuzenbideak izan behar dituen zutabeak: [Bertako zuzenbidea eta tradizioa], [Zuzenbide naturala] eta [Zuzenbide erromatarra].

Zuzenbidearen erabilera berriaren bidean, ondorioa izango da Z.erromatarra eta Digestoaren erabilera berria: **Usus modernus Pandectarum**. Domat frantsesak irekitako bidea jarraituko dute zenbait autoreek. Frantzian, Pothier izan zen, *Traité des obligations* eta beste zenbait monografia frantsesaz idatziko dituena. Arnold Vinnen, holandan eta Hans Gottlieb Heinecke, alemanian, zuzenbide nazional kodetuaren oinarriak jarri zituen. Nazio bakoitzeko zuzenbide-sistema osotua, perfectua eta zirrikiturik gabekoa lor zitekeela uste zuten metodo honi: “Pandektista” deituko zioten korrante honi. “Pandekta” edo Digesto berria sortu nahi zelako.



## **17. EUSKAL FORALTASUNAREN EBOLUZIOA.**

### **EUSKAL FORALTASUNAREN ZENBAIT EZAUGARRI:**

Goi erdi aroan zehar oraindik egituratu barik agertzen ziren lurraldeak. Erresumen probetxurako ekimenak suspertzeko, populazio gune berriak promozionatu eta foru edo egoera juridikoak onartzen ziren. Erregeen zeregina zen guztien arteko oreka politikoa mantentzea, beraz anistasun juridikzionala zen nagusi. Erregeek gero eta pozisio egokiagoa izango zuten etorkizun politikoaz jabetzeko, bai erresuman elementu anitz zeuden: munizipio autonomoak, eliztar jaurerriak, etab. Hauetan, jurisdikzio-arlo propioa hartzen zuten, jaurerriak, “Señorio Jurisdiccional” deitzen zen. Eskumenezko jaurguetan, jaunek, jaurerrian bizi ziren guztiengan eskubide ekonomikoak, pertsonalak eta jurisdikzionalak izaten zituzten. Behe erdi aroan, erregeak beren erresumen gidaritza sendoagoa hartzen hasi ziren, beren goren eskumena finkatuz.

Aro berrian, erregearen posizioa askoz indartsuagoa izango da, legegintzako ahalmen sendoagoak eskuratu ahal izateak. Toki bakoitzak bere egoera juridikoa izan dezake, berari dagokiona, bere FORUA. Foru hitza: toki bati dagokion zezenbide bereizgarria da. Forua, toki bakoitzak bere biztanleria eskubidedunak zeukan eskubide-multzoa. Lurraldetar bakoitzak bere forua izango dute. Toki bakoitzeko egoera juridiko berezia idatzirik azaltzen denean, foru hitzaren beste zentzua dugu: eskubide multzo baten formulazio idatzia. Toki bakoitzeko forua: ohiturak, populazio testuak, foru laburra, geroagoko idatzitako foru luzea, pribilegioak, mesedeak, etab.

Monarkia indartu zenean (XVII-XVIII. Mendeetan), foru “lurraldetarrak” zituzten erreinuak, beren egoera “foral hori testu eta erakundeen bidez bermatu behar izan zen. Iberiar penintsulan, Felipe IIaren Inperioaren parte egiten zuren lurraldeen artean, mantendu egin zen erresuma egitura osoa. Nafarroa eta Aragoiko Koroako lurraldeek, azken hauek “Nueva planta” arte, erreinu izaera mantentzen zuten. Estatu konstituzionalak nagusitzen hasu zirenean, beharreskotzat hartzen zen jurisdikzioak bateratzea, lurraldetar zuzenbide orokor bat eta bakarra finkatzea. Espainiako historia juridikoa XVIII. mendetik aurrera, bateratze eta berdintze horren prozesua da.

### **PROBINTZIA “EXENTUAK”**

XVIII. Mendearen hasieran izandako Oinordetza Gerran, Nafarroak eta Gaztelako euskal lurraldeak ez zuten inongo kalte juridikorik jasan. Felipe V.aren alde zirelako. Euskal lurraldeak beren egoera forala mantendu ahal izan zuten, “provincias exentas”-tzat hartuko direlarik.

POWER POINT:

## NOVISIMA RECOPIACION DE LAS LEYES DE ESPAÑA

Testu juridikoa da bere osotasunean, Erreinu Hispaniarreko antolamendu administratibo-politikoaren aldatzen baitu.

Iturri zuzenekoak da, bertan hainbat agindu azaltzen direlarik.

Iturria juridikoa eta zuzena izanik, arau multzo baten aurrean aurkitzen gara: errekopilazioa, alde batetik, eta dekretua, beste aldetik.

Autorea: Felipe V.a, ekimenduna ere bera delarik.

Data: Errege Dekretu hau 1716ko urtarrilaren 16an aldarrikatu.

Tokia: Errege Dekretu honek Cataluñari eragiten dio.

Testuaren hizkuntza: gazteleraz idatzita dago, Felipe V.ak Erreinu guztirako onartzen duenez.

## 9.KONSTITUZIONALISMOA EUROPAN ETA AMERIKAN

### 18. FRANTZIAKO IRAULTZA ETA ZUZENBIDEA

Iraultza frantsesak arlo sozialean eta egitura ekonomikoan aldaketa handiak ekarri zituen. Garbi agertu zuen 1789ko udan parlamentu estamentalak bildu zirenean Parisen. Hirien estamentua osatzen zuten kideen batzarra egitea ez zen ametitu, eta bere bilkura propioa egin zuten pilota-leku batean. Egun batzuk geroago hiru estamentuak asanbladan bildu ziren nazioaren subiranotasuna aldarrikatuz.

Gizakia hartuko dute objektutzat eta gizakiaren eskubideen aldarrikapena, eskubide zerrenda zehatza, idatzia, merkataria ordenatu batek egingo lukeen modukoa, azaldu zioten munduari. Gizakiaren eskubideen alde borrokatu zuten. Eskubide horiek legearen bitartez adierazten ziren. Adierazi eta definitu ondoren errealitate berria sortzen zuten. Gauzak nola izan eta nola egin behar ziren definituz errealitate berri bat sorrarazten ari ziren iraultzaile haiek.

Eskubide indibidualez jantzitako pertsona indibiduala, haurkoaren eskubideak ez kaltetzearen muga besterik ez du izango. Gizarte berri bat sorrarazi nahi zen. Erregearen botere absolutua, legearen menpean egotera pasatuko da. Herria da subiranotasunaren jabe eta legea bere ahotsa. Epaileek aplikazioan zehar sorturiko problemak eta gatazkak konpontzeko epaiak emango zituen, modu askean beteko zutelarik beren zeregina. Legea sortzea, exekuzio edo egikaritzea eta sententzia ahalmen edo botere ezberdin eta bananduen artean egin beharko zen. Nazioaren subiranotasuna parlamentuan gauzatuko zen eta parlamentuan gordeko da legea adierazteko ahalmena. Funtzionarioek eta epaileek gauzatuko dute legeak agindutakoa.

Iraultzak legearen aginte erabatekoa ekarri zuen: Legalismoa. Frantzian, descartesen filosofiak eta frantziar humanismo juridikoa, bere fruituak eman zituzten. Pothierrek gauzatuko dituen ibilbide juridiko hau kode atarian jarri. Frantzian izango du kodegintzak emaitzarik distiratsuenak: Kode Zibila eta prozedurazkoa 1804an, merkantila 1807an eta penala 1810ean.

POWER POINT: AMERIKAKO IRAULTZA

### Kausa nagusiak:

-Ilustrazioaren ideien hedapena. Honen bidez euren indar eta posibilitate politikoetaz jabetu .

-**Errege Jorge III-aren politika autoritarioa . Zergak igo** zizkien hamairu koloniei.(te-aren gaineko zerga , paperaren gaineko zerga...)

- Koloniek ez zuten inolako errepresentaziorik Londreseko parlamentuan. Baztertuak sentitzen ziren. Tirabirak hasiko dira.

### **ONDORIOAK**

-EKONOMIKOAK ? Traba merkantilistak ezabatu. Honekin hasi *expantsio ekonomikoa*

-SOZIALAK ? Estamentuak desagertu, orain klaseak. Burgesiak hartu buruzagitza

-INTERNAZIONALAK ? Eragin handia, adibidez Frantziarako

-POLITIKO-IDEOLOGIKOAK? Ilustrazioaren idealak hedatu. AEB errepublika federal bilakatu eta botere banaketa eman.

## **10.KODEGINTZA**

### **19. KODEGINTZA. EGITURAREN ALDAKETA ETA ZUZENBIDEAREN ADIERAZPIDE BERRIA.**

Zuzenbide publiko eta politikoaren kodegintza egin behar zen: konstituzioak, baina zuzenbidearen zenbait arlotan( zibilean, penalean, merkantilean). Egitura juridikoaren aldaketa osoa izan behar zuen. Garbi azaltzen zen kodegintza konstituzionala eta zibila fenomeno beraren aurpegiak zirela: eskubide politiko eta zibilen adierazpide.

Antzin erregimenaren azken garaian, Espainian atzera pauso eman zen “Novisima Recopilacion de la Leyes de España” egin zenean, Frantzia aurreko urtean Kode Zibila promulgatu zen. Espainiak egindako errekopilazioa oso kritika gogorak jasan zuen, batik bat esaten zen, kode berriek zuzenbide guztia hartu behar zuten eta errekopilazioaren orde z jarri behar ziren.

Erromatar zuzenbidea, Espainiako instituzioak aztertze erabiliko da. Erromanismoa ez da guztiz ezabatzen eta oraindik ere zuzenbide “patria” aztertze eta lantze besterik ez bazen ere, zuzenbide erromatarra erabili beharra zegoen.

Arrazionalismo zuzenari heldu behar zitzaion, zuzenbide guztien jatorria, baita erromatarra. Jatorrizko eskubide lortu behar zen, printzipio eta erregela orokorretan gauzatzen zena, benetako zuzenbide naturala, arau guztien iturria dena.

KODEAREN definizioa: arau gorputz sistematikoak dira, legea eta zuzenean adierazten dutenak, legea ataletan zatikatuz. Atal bakoitzean agindu zehatz bat hertzen da atal guztien artean multzo logiko eta koherentea lortuz. Horrela, kode bakoitzean, dagokion alor juridikoaren aztertze ahalik eta osoena egingo da, hutsunerik ez lagatzea helburutzat hartu ondoren.

## **11.KODEGINTZA ESPAINIAN**

### **20. KODEGINTZA ZIBILA ESPAINIAN**

#### **1851KO PROIEKTUA**

Kodegintzarako batzorde orokorra sortu zenetik 1843ko abuztuan, Kode Zibila lortzea helburua zen. Proiektua, 1851ko proiektua izan zen. Jurista adituak eritu ziren, bakoitzak kodearen arlo bat hartuz. Florencio Garcia Goyena, izan zen parte hartze handiena eta erabakigarriena izan zuena batzordearen lanetan. Proiektua bukatu zenean, kodea atariko tutuluaz eta beste hiru liburuz osatzen zen. Guztira 1992 artikulua. Ezaugarri orokorrak: Frantziako kodearen eragin handia, indibidualismo nabaria, zuzenbide foralenganako aurkakotasuna eta Gaztelako zuzenbidearen nagusitasuna.

Gobernua ez zen ausartu proiektua onartzera, lan bikaina izan zela onartzen zuen arren, ez zen proiektua onartu. Goyenak proiektuaren artikulua bakoitzaren iruzkin bat egin zuen eta liburu bat egin zuen *Concordancias, Motivos y Comentarios del Codogo Civil*.

#### **LEGE ZIBIL BEREZIAK ETA ZUZENBIDE FORALAREN EGOERA:**

Lege bereziak behar ziren eta batzuk promulgatu ziren: *Ley hipotecaria, Ley de matrimonio Civil, Ley de aguas* eta *Ley del Registro Civil*. Problemarik larriena zuzenbide zibil berariazko zuten lurraldeetan indarrean zeudenei (Bizkai, Nafarroa, aragoa, Katalunia eta Mallorca). 1868ko juriskonsultoen kongresuan erabaki zen sistema bakoitzetik gauzarik onenak hartzea, kode batua helburutzat hartuz. Giro horretan, behin betiko kodea egiteari begira, esan behar da 1876ko konstituzioa zuzenbide foralen alde zegoela, arlo pribatuan, nosrki.

Alvarez Bugallal ministroak 1880ko otsaileko dekretu baten bidez, urtenete barruan kode egiteko agindua ema zion kode batzordeari Zuzenbide foralen arautze egoki bat lortzeko lurralde forudun bakoitzak bere "Memoria" azal zazala agintzen zuen dekretu hark.

#### **KODEGINTZA ZIBILAREN PROZESUA:**

Alonso Martinez justiziako ministroaren eraginez oinarrizko legeen sistema nagusituko da, 1876ko konstituzioan aurreikusitako moduan ez bazen ere: oinarri legeetan legeria zibilaren printzipio orokorrak eta oinarri funtsezkoak ematen ziren. Gorteek oinarri horiek onartu behar zituzten. Gero batzorde teknikoak oinarri horiek garatu eta gorteetara itzuliko ziren. Hori egin ondoren kode proiektuaren atalak banaka aztertu beharrean, oinarri legearekin bat zetozen guztia aztertu zuten.

Lehen oinarri legea ez zen onartu, baina bigarrenak, Alonso Martinez ministroa zelarik, 1888ko maiatzean promulgatu zen. Oinarri legea 27 oinarri zituen. Lehengoak 1851ko proiektua ontzat ematen zuen. Bosgarren oinarria, zuzenbide foraleko lurraldeetan, zuzenbide hori mantendu egingo zela agintzen zuen, “por ahora” bazen ere. [Aragoi, Nafarroa, Katalunia, Galizia, balear irlak eta Bizkaiko lur laua]. Seigarrenean aipatzen dira eranskin foralak, lurralde foral bakoitzerako egin behar zirela agintzen zuen seigarren oinarria.

Oinarri legearen 5.artikuluak, kodearen 12.artikulua egiten zuelarik [“...las provincias y territorios en que subsiste derecho foral lo mantendan por ahora...”]. Kode zibilaren ordezkotasuna, zuzenbide forala mantentzen zen lurraldeetan, bigarren edo hirugarren graduko izango zen [“...este codigo...regira tan solo como derecho supletorio en defecto del que lo sea en cada una de aquellas...”]. Kode zibila eranskinaren lehen graduko ordezko izatera pasako zen. “Por ahora” hura mantentzeko arrazoiak desagertzen ziren:lurralde foral bakoitzean irauten zuen zuzenbide foral, berari zegokion eranskinen sartuko zen, ordezko zuzeneko lehen gradukoa Kode zibila izango zen.

### **ZUZENBIDE ZIBIL BEREZIEN KONPILAZIOAK:**

Lurralde bakoitzeko sistema juridikoa bere osotasunean hartu ziren eta ez instituzio aipagarrienak bakarrik. Prozesu luze eta makal bat behar izan zuten, Konpilazio guztiak egiteko: Bizkaian: Bizkaiko Lur laua, Audio eta Aramaio. Oinetxekotasunean oinarrituta. Testamentu-askatasun osoa.azken 3 artikuluak Aiarari zegozkion

Katalunia: Zuzenbide zibila era sakon eta zehatzean aztertu.

Balear Irlak: 3 liburu: Mallorca, Menorca eta Ibiza. Ohitura-Zuzenbideko zenbait erakunde hartu.

Galizia: “Foro” eta “Compañia familiar” arautu

Aragoi: 1926ko legea derogatu. Familia aragoitarren ezaugarri juridikoak mantendu.

Nafarroa: Diputazio Foralaren batzordeak prestatu. Estatu-Buruari zuzenean aurkestu. Iturrien lehentasun ordena desberdina.

### **KONPILAZIO ZIBILAK ETA EGUNGO EGOERA ZUZENBIDE ZIBIL**

#### **AUTONOMIKOAN.**

### **ESPAINIAKO KONSTITUZIOA ETA ZUZENBIDE ZIBILA**

Ordenamendu zibil foralak zeuden bezala geratu ziren 1889ean, baina 12 artikuluan egoera hori epe labur batetarako bakarrik aurreikusten zen. Epe hori oso luzea izan zela: konpilazioak egin ziren arte. Lurralde foral bakoitzean ordenamendua mugatu egin zen eta erabateko finkapena eman zitzaion. Kode zibila lehen graduko ordezkoa izatera pasa zen.

Egun 1978ko konstituzioaren eraginez, egoera hura guztiz aldatu zen. Komunitate autonomoen artean banatu behar dira eskuduntzak. Konstituzioaren 149.1. artikulua zerrendatzen ditu estatuaren eskuduntza eskusiboak. Artikulu horren zortzigarren puntuak zuzenbide zibileko legegintza estatuari dagokiola dio. Baina zuzenbide zibil edo foral bereziak dauden tokietan (“alli donde existan...”), toki horietako komunitate Autonomoek mantendu, aldatu eta garatu ahal izango dute beren zuzenbide zibil foral eta berezia.

Hori da 149.1.8.artikulua diona. 149.1.8. artikuluan aztertzen den legeria zibilerako eskuduntza ez da benetako eskuduntza eskusiboa, baizik konpartitua, honelako aginpide partekatu guztiak bezala eta problema bereziak sortzen dituenean. Artikulu honek interpretazio problemak planteatzen ditu. Interpretazio hertsiazen arabera zuzenbide foral edo berezia duten erkidegoek, zuzenbide hori alda dezakete, egungo zirkunstantzietara egokituz, 8.puntu horrek Estatuaren esku gordetzen dituen eskuduntzetan izan ezik. Zuzenbide zibilaren gordetze, aldatze eta garatze, zuzenbide bereziak dituzten Erkidego Autonomoenetan bakarrik egin ahalko dira. Zenbait lurralde daude konpilazioak ez dutenak eta zuzenbide berezia dutela, adibidez, Valentzia.

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA:**

Euskal lege biltzarrak 1992ko uztailaren 1eko legea eman zuen, *Euskal Herriko Foru-zuzenbide zibilari buruzkoa*. Promulgatu den legeak Euskal Autonomia Erkidegoa hartzen du, baina hiru liburutik banatzen da segidan, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa foru zibila, urrenez urren, arautzeko.

Bizkaiko liburua da garrantzitsua, 1959ko konpilazioan oinarrituta eta luzeena. Arabakoa Aiarako forua zehazten du, eta Laudio eta Aramaioko egoera, hau da, Bizkaiko Foruen Aplikazioa bermatzen du. Gipuzkoari dagokionez, artikulua bat besterik ez dago, 147.a, baserrien eta familien ondasunen antolaketari buruzko ohiturak aitortzen direlarik.

POWER POINT:

**Este es el artículo que se explica antes de la constitución, pero es Euskeraz.**

-Konstituzioaren 149.1.8.art: Legegintza zibila; horri kalterik egin gabe, **autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, iraunarazi, aldatu eta garatu ahal izango dituzte**, halakoak direnetan. Edozein kasutan, arau juridikoen aplikazio eta eragingarritasunari buruzko erregelak, ezkontzeko formei dagozkien harreman juridiko-zibilak, erregistro eta agerkari publikoen antolakuntza, kontratuetako betebeharren oinarriak, lege-gatazkak konpontzeko arauak eta Zuzenbidearen iturburuak zehazten dituztenak, edo zuzenbide bereziaren arauak errespetatuz.betiere, azken kasu horretan, foru-zuzenbidearen.



## 11.KONSTITUZIOAK ETA FORUAK XIX: MENDEKO ESPAINIAN.

### 21. ESTATU LIBERALA ETA FORUAK. FORUEN BIRMOLDATZEA.

Kadizko hirian bildu ziren lurralde ezberdinetatik, “bi hemisferioetatik” (Espainia eta Amerikako koloniak) eratorritako ordezkariak. Nazioaren borondateare ordezkatzeko zutela eta konstituzio berri bategiteari ekin zioten. Honela eman zitzaion Espainiar Konstituzionalismoari.

Nola elkartu konstituzioak eta foruak? Sei urte lehenago bakarrik argitaratutako *Novísima recopilacion de las leyes de España* delakoan, ez zen agertzen foruen aurkako xedapenik. Probintzia forudunen salbuespen eta eta pribilegioei buruzko titulu oso bat zegoen. Konstituzioak, berdintasunaren printzipioa zekarren: nibelazioa, hau da, egoera juridiko guztiak maila berean jartzea.

**Kadizko Konstituzioak**, nazioaren subiranotasuna eta naziokideen berdintasun osoa bedekatzeko zituen. Egoera fiskal berezirik ezin zitekeen mantendu, nazioak merkatu bateratu bezala funtziona oztokatzen zituen barne-muga arantzelarioak, aduanak. 1812an, euskal herrialdeen eta Nafarroaren Gaztelarekiko muga arantzelarioa ebro ibaian kokatuta zegoen. Kadizko konstituzioak erregimen foralak ez zituen kontuan hartzen. XIX. Mendeko konstituzioek foruen aurka jokatu zuten, konstituzio hauen ezaugarriak foruei zegokionez: 1-nazioaren subiranotasuna, 2-Berdintasun fiskala, 3-Pribilegioak ezabatzea eta 4-Barne aduanak kentzea.

Erregimen absolutistek berriz, konstituzio gabezi epealdietan (1814-1820; 1823-1837), Antzin erregimeneko egitura berreskuratzen zuten. Horrela, erregearen agindu batez, 1814eko abuztuaren 7ko ordenak, Foruak konfirmatu zituen. Hurrengo urteetan udal antolakuntza foralak izugarritzko indarra hartu zuen. Monarkia fernandinarrak, hirurteko liberal-aldia bukatu ostean, 1823an udalen eta diputazioen egitura indartu zuen.

Fernando VII.a hil zenean, 1833an, oinordetza problema bat sortu zen. Testamentuan bere alaba Isabel oinordetzen zuen, adin txikikoa zenez, bere ama Maria Kristinak hartu zuen. Karlos, Fernandoren anaia zena, ondorengotza horren aurka zegoen eta bi alderdien arteko gerra piztu zen. Karlistak galtzaile atera ziren, baskongadetako eta Nafarroako biztanleen parte bat bando honetan, galtzaileak egon zirela. Bergaran, 1839ko abuztuaren 31ean, karlistek eta liberalek hitzarmena sinatu zutenean, Esparterok Baskongadetako eta Nafarroako foruen iraupena posible egiteko konpromisoa hartu zuen. Lege bat promulgatu zen, **1839ko urriaren 25eko legea**, lehen artikuluan foruen konfirmazioa egiten da: (“se confirman los fueros de las provincias vascongadas y de Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía”). Lege honetan, foruak konfirmatzen dira. Bi urte lehenago, 1837eko irailaren 19ko Legea agintzen zuen diputazio

probintzialak jartzea eta foralak kentzeak. Beraz 1839ko lege honekin bi urte lehenago emandako legea deuseztatzen da. Hau guztia 1837ko konstituzioaren barnean kokatzen da, konstituzioak eta foruak elkarren adostasun egoeran jarri behar ziren: konpondu, “arreglo foral” baten bitartez.

Bi urte pasa baino lehen Nafarroak “arregleo” horren bidea hartu zuen 1841ko abuztuaren 16ko legearen bitartez. Lege hau “ley paccionada”-tzat hartu izan da, izen hori hartzen du botereen artean emandakoa balitz moduan. Lege honek garbi azaltzen du zer esan nahi zuen nibelazioak, foruen egoera konpontzeak. Nafarroa erreinu izatetik probintzia izatera pasatzen zela. Monarkiako beste probintzien maila berean jartzen ditu, Nafarroako zenbait arlo politiko eta administratiboak. Euskal probintziek uko egin zioten Nafarroak sinatutako “arregloari” eta Esparteroren kontrako errebolta egin zen. Espartero garaile atera zen eta 1841eko urriaren 29an dekretu bat eman zuen.

Espartero boterean zegoen, baskongadetako administrazioa aldatzeko asmoa zeukan, aduanak, antolakuntza judiziala, orden publikoa eta gobernuaren lege eta ebazpenak beste probintzia guztiekin nibelatu nahi zuen.

Moderatuak boterea bereganatu zutenean, 1844an gauzak zeuden bezala utzi nahi izan zituzten, euskal liberal-moderatuen laguntza indartsuarekin. Dekretu batek, 1844 uztailaren 4koak aitortzea oraindik ere “arregle forala” ezin zitekeela definitibotzat hartu. 1844ean Nafarroako egoera konpondutzat ematen zen, baina hiru probintziak “arreglo”-aren beharrean zeuden oraindik.

1848ko abuztuaren 22ko errege ordenak, justizia kontentziosia, administratiboa, euskal probintzietan Diputatu Nagusiaz eta diputazioetako kontsultore edo aholkulariez osatzea onartu zen. Probintzia foralak indar handia eskuratu zuten, 1853ko irailaren 12ko ordena, udalen aurrekontuak eta ditu mugimendu guztiak diputazioen aurre-azterketa eta kontrolpean jartzen zituen.

1873an Espainian Lehen errepublika ezarri zenean, karlismoaren aldeko indarrak antolatu eta erregimenaren kontrako borroka bati hasiera eman zioten. Errepublikaren porrotarekin, borbondarren erregea jarri zen tronuan, baina karlistek ez zuten onartu Alfontso XII eta borrokatzen jarraitu zuten, Karlos VII.a tronuan jarri nahian.

Aldaketa hau, Errestaurazio garaiari hasiera eman zion. Konstituzio berri bat promulgatu zenean, 1876an, foruak berriz “arreglo”-ren aurrean kokatzen ziren. Protagonista handiena, Antonio Canovas del Castillo izan zen (errestauraziorako urrats guztiak gidatu zituen gizona). Behin-betiko pausoak eman zituena izan zen, lege honekin, **1876ko uztailaren 21eko legea**.

Gipuzkoako batzar nagusiek lege hau, lege iraungitzailatzat hartu zuten eta foruen kontrako deklaratu zuten. Gobernuak, espainiar armadako Quesada kapitainak akordio batera iritsi zen hiru probintziekin. Hiru probintzietako Diputazioak Donostian bildu ziren eta erabaki zuten ezin zutela

Quesadaren erabakiak onartu. Egun batzuk geroago Bizkaiko diputazioa desegin zen. Eta geroago Araba eta Gipuzkoak berdina gertatu zen, kendu zieten diputazioak.

Diputazio berrien eredupean, konponbide “kontzertua” egokitzat hartu zen. Ondorioz, zerga maila erregimen foralaren aurpegia mantentzen zen. Kontzertu hau, zerga-sistema berezia da. Diru kopuru batetan gauzaten zen: Kupoak.

### **KONTZERTU EKONOMIKOAK.**

-Lehen kontzertu ekonomikoa: 1878koa. Transakzioztat har genezake. Kupoaren diru-kopurua zehazteko eragozpen handiak sortu ziren administrazioan, ez zelako horretarako behar ziren datuen jabe.

-Bigarren kontzertu ekonomikoa: 1882koa. Modu sendoago batean emandako kontzertuek gero eta sendotasun eta finkapen handiagoa zuten.

-Hirugarren kontzertu ekonomikoa: 1894koa. Euskal nazionalismoa bere lehen pausoak ematen ari zenean sinatu zen. Nazionalistak kontzertu sistemaren aurka azaldu ziren hasiera batean.

Laugarren kontzertu ekonomikoa: 1906koa. Plataforma bultzatzailea Liga Foral zen. Alderdi Jeltzalea kontzertu honen alde jarri zen.

-Bosgarren kontzertu ekonomikoa: 1926koa, 25 urte irauteko prest zegoena. Gipuzkoa eta Bizkaia zigokionez moztu zuen Frankok, portaera traidorea zela eta. 1976an derogatu zen. Gero 1978ko konstituzioak sortutakoak ereduarekin barnean, erregimen fiskal hitzartua berreskuratu da, Araban 1952.etik 1976era arte indarrean izan zenaren bideari jarraituz.

### **POWER POINT: 1876KO UZTAILAREN 21EKO LEGEA:**

Legea Uztailaren 21ean egin zen, eta Uztailaren 25ean argitaratu.

Karlistadaren amaierak gobernuaren ikuspegitik Foru-erregimenari buruzko erabakiak hartu behar ziren: Foruen abolizioa.

Lege honen aplikazio esparrua: Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa.

Hizkuntza: Gaztelaniaz

Nafarroa eta Beste Euskal lurraldeetako Diputazioak ez zeuden ados lege honekin.

Abolizioaren aurka jarri zirelako salbuespen egoera (estado de excepcion) jasan behar izan zuten:

Berme Konstituzionalaren aplikaziotik kanpo.

Euskal Diputazioak Lege hau Lege iraungitzaitzat hartu zuten.

Diputazioan 2 alderdien eratzea: Transigenteak eta Intransigenteak. ? Jarrera horrek Foraltasunaren irudia ez galtzea ekarri zuen; horrela Kontzertu Ekonomikoak gauzatu.

### **1839ko urriaren 25eko legea: (lehengo gerra karlista, legeari sarrera)**

Espainiako Fernando VII.a hil ondoren, bere 1830eko Santzio Pramatikoak ezartzen zuten ondorengotzari buruzkoak liskarra piztu zuen.

Alde batean liberalak zeunden, Fernandoren alaba Isabel II.aren alde zeundenak eta beste aldean berriz, karlistak, Fernandoren anaia Karlos Maria Isidroren alde zeundenak. Espainian, Absolutistek antzinako erregimena defendatzen zuten eta karlisten inguruan bildu ziren. Eliza katolikoari eman nahi izan zizkion lehengo pribilegioak eta Foruen alde egin zutenez herri xehearen babesak izan zuten.

Liberalek Iraultza Frantsesaren ideien alde zeunden, eta elizaren boterea murriztu nahi zuten. Horrez gain, Burgesia liberalen inguruan bildu ziren.

Karlistak foruen, tradizioaren eta erlijioaren babesle ziren eta liberalak estatu-zentralismoaren aurrerapenaren alde zeuden. Karlismoak ez zituen inoiz hiri handiak konkistatu, setiatu bazituzten ere.

1837ko legeak aipamen berezi bat behar du, izan ere lege horrekin foruak berresten dira.

1839ko abuztuaren 31an Bergarako Hitzarmenak eman zion amaiera Lehen Gerra Karlistari, Maroto eta Espartero jeneralen arteko hitzarmenarekin hain zuzen ere. [Don Karlos Borboikoa](#) Espainiako infantetzat hartzea, probintziako foruak erabat errespetatzea eta armadako kargu eta kondekorazioak mantentzea adosten da. Hogeita hamahiru urte geroago [Bigarren Gerra Karlista](#) piztu zen 1872tik 1876ra.

Hau kontuan hartuta 1839ko urriaren 25eko legea egin zen foruak konfirmatzeko.